


ANTONIO ZAVALA, S. I.

IRU ANAI BERTSOLARI

Saiburu'ko Juan José, Nikolas eta Anjel Lujanbio



AUSPOA LIBURUTEGIA

IRU ANAI BERTSOLARI

AUSPOA LIBURUTEGIA

73

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián**

Ordaindu bearak:

**Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta
Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "**

ANTONIO ZAVALA, S. I.

IRU ANAI BERTSOLARI

Saiburu'ko Juan Jose, Nikolas eta Anjel Lujanbio

AUSPOA LIBURUTEGIA

1968

D. L. S. S. 41/68

**IZARRA - Peña y Goñi, 13
San Sebastián - Enero 1968**

IRU ANAI BERTSOLARI

Juan Jose, Nikolas eta Anjel Lujanbio

JAIOTZA

Lau senide izan ziran: Juan Jose, Nikolas, Martina ta Anjel.

Juan Jose, Abillats baserrian jaio zan, 1874/VI/23'an. (1) Abillats, Urumea'ren erreka-zuloan dago, Latze ballaran, Ernani'ko partean.

Juan Josek etzuan mundua pakean arkitu: karlisten bigarren gerratea urte aietan izan zan; karlistak Ernani setiatua zuten. Orregatik, erri ontara joan eziñik, aurra Naparroa'ko Arano'ra eramán zuten, pranko bide luzean.

Gurasoak, Juan Maria ta Maria Josefa Zabaleta ziran. Aitaren aldeko aiton-amonak: "Pedro de Lujambio", ernaniarra, ta "Francisca Iraola" Arano'ko alaba; amaren aldekoak: "Juan Tomás Zabaleta", Leitze'koa, ta "María Simona Echeveste", Arano'koa.

(1) Juan Joserén *expediente matrimonial*, Errenteria'ko elizan.

Senideetan bigarrena, Nikolas izan zan. Au ere Abillats'en jaio zan, 1877'ngo Apirilaren 14'an, bañan Ernani'n bataiatua. (2)

Arreba bat, Maria Bautista, amaika illa-beterekin il zan. Urrena, Martina izan zan. 28 urterekin, 1910 urtean, moja sartu zan. Zaragoza'n urte asko egin ondoren, Iruñea'n il zan.

Ta gazteena, Anjel izan zan. 1886'gn. urteko Martxoaren lenengo egunean jaio zan. (3)

Martina ta Anjel Donostia'ko Basozabal baserrian jaio ziran. Familia Abillats'etik onera aldatua zan. Basozabal, Oriamendi ta Astigarraga bitartean dago.

Bañan etziran emen denbora luzean bizi izan. Errenteria'ko Saiburu edo Sareaburu baserrira aldatu ziran. Saiburu Zamalbide ballaran dago, kamioaren ondoan, oso leku politean.

Etxe-aldaketa au noiz egin zuten, ez dakigu batere. Bañan lau senideak gaztetxoak zirala, nolanai ere. Bestela, zaarrenari etzion erriak Saiburu izengoitia erantsiko, bertsolari bezela bere burua agertu zuanean. Sai-

(2) Ernani'ko 11'gn. bataio-agiri-liburua, 243'gn. orria.

(3) Donostia'ko *Buen Pastor* elizako bataio-agirietan.

buru esan zioten bere denbora guzian, ta Saiburu esaten zaio gaur ere, il ondorenean. Guk ere ala deituko diogu. Beste bi anaiak, berriz, beren izenez esango diegu.

Saiburu'tarrak, Txirritarekin lengusu propioak ziran: aitak anaiak. Ain zuzen, Latzezar, Txirritaren jaiotetxea, Abillats'etik alde xamar dago. Ta Txirrita baserria ere, ez dago Saiburu'tik urruti. Gero bertsoetan agertuko danez, oso alkar maiteak ziran. Are geiago: Txirrita ta Saiburuk antza aundia dute bertso-joskeran, nere iritziz beintzat.

JUAN JOSE

Zaarrena baitzan, etxerako gelditu zan. Josefa Agustina Inziarte'rekin ezkondu zan, 1900/V/2'an. Andregaiak, Errenteria'ko partean eta Saiburu'tik alde xamarrean dagoan Bordondo baserriko alaba zan.

Amar seme-alaba izan zituzten: Zaarrena, jaio ta bereala illa; Juan Mari; Maria; Juan Jose, aur txikitan illa; Sebastian; Anjel; Juana; Jose Maria; Lorentxa; ta Karmen. Txikitan ildako bi oiek izan ezik, beste zortzirak bizi dira gaur egunean.

Bertso kantatzen noiz asi zan, eztakigu, bañan gazterik nunbait. Plaza asko korritu zuan. Kantu-lagunak, bere lengusu Txirrita, Prantzes-Txikiya, Pello Errota, Olegario, Te-

lleri-txiki, Kaskazuri, Oloki ta abar izan zituhan.

Saiburuk aotik aora kantatutako zenbait bertso, bilduak ditugu, beraren semeak emanda. Gutxi badira ere, irakurleentzat erakusbidet izango al dira.

Bein batez, Txirrita Saiburu baserrira etorrita, bi lengusuak kantuari ekin zioten, ta amalau egunean ia ixildu gabe jardun omen ziran. Amabosgarrenean, Txirrita, oso zaartu ta baldartuta baitzegoan, gurdi gañean jarri ta Gazteluene'ra, bera bizi zan baserrira, arrebaren etxera alegia, eraman zuten.

Bertso-paperak jartzen ere saiatu izan zan bein baño geiagotan: 1909'gn. urteko Errenteria'ko Misioari; "Oroipena" izendatzen dan beste bertso-sail bat. Oiek, bere kasa, iñork beartu gabe jarriak ditu.

Ortaz gañera, bateonbateg eskatu ta jarri izan zituhanak: neska-mutillanak, Oiartzun'go sesio batenak, eta abar.

Guk jasoak ez-ezik, beste bertso geiago ere izango zuan, noski. Semeak gogoratu dirane-kin konten bearko degu.

Beste bertso-sail batekin, berriz, auzia sortua degu Saiburu ta Errikotxia bertsolarien artean, nork jarria izango dan. Saibururen semeak beren aitarena dala diote; Errikotxiaren alabak, berriz, berearena bezela

eman zidan. "Dozen erdi bat bertso jartze-ko..." asten da sail ori. Errikotxiaren liburuan dagoan ezkerro (1), ez degu emen berriro jartzen.

1945'gn. urteko Azaroaren 4'an, omenaldia egin zioten Errenteria'n. Meza, bertso-saioa, bazkaria ta abar izan zan. *Placa* edo oroigarri bat erregalatu zioten. Basarri, Mitxelena, Ondartza, Eizmendi bertsolariak ere an ziran. Egun artan kantatutako bertso bat edo beste gorde izan da, ta geroago ikusiko du irakurleak.

1954'gn. urteko Urriaren 18'an il zan, 80 urterekin. Bere emaztea, berriz, 1958'gn. urteko Apirillaren 18'an il zan.

NIKOLAS

Lenengo, Ernani'ko ostatu batean lan egin zuan.

Soldaduzka kunplitu ondoan, Amerika'rekin lilluratuta, Argentina'ra joan zan. Arunzkoan itxasoan nola ibilli ziran, bertsoetan kontatzen du. 1906 edo 1907'gn. urte inguruan joan zan.

Mar del Plata'ko *Hotel Continental* zeritzaionean, sukaldari asi zan. Ta asi ez-ezik, bertan iraun zuan Amerika'n bizi izan zan denbora guzian.

(1) Auspoa, 60, 45'gn. orri-aldean.

Andik onera, etxera alegia, eskutitzero bialtzen zituan bertsoak, asko edo gutxi. Eskutitz oiek galduak dira gaur egunean, bat bakarra izan ezik. Bañan bertso askoz oroitzen ziran Nikolasen illobak, bere anai Juan Joseren seme diran Juan Mari, Anjel ta Jose Mari Lujanbio. Auek emandakoekin ornitu da liburu au. Eskerrik asko, biotz-biotzez.

Bi aldiz etorri zan andik onera bisitaz. Aurrena, bere anai gazteena, Anjel, esposatu zanean, 1917'gn. urtean. Bigarrena, 1930'gn. urte inguruan.

Beraren bertsoetan maiz xamar agertzen dira ezkon-bearrak ematen zizkion kezkek. Ango neskatarik etzuan nunbait nai, ta andik emengorik billatzea, berriz, oso lan erreza etzuan, noski.

Ona nola dion, erdizka bakarrik jaso al izan degun bertso batean:

.....
.....
uste det diradela
berrogei ta piko,
neroni ere ez nago
gazte ta mutiko,
bildur naiz gelditzeko
mutilzar betiko.

Norekin uztartu arkitu zuan, ordea. One-

ra etorri zan bigarren aldian, Errenteria'ko pasteleri batean sartzen zan noizean bein. Ango *dependienta* bat, Maria Roldan zeritzana, berealaxe etortzen zitzaion silla jartzera ta bear zuan guzia ekartzera. Ta ezaguerara ola egiñik, esposatzea erabaki zuten. Argentina'n ezkondu ziran. Etzuten aurrik izan. Ta, zenbait urteren buruan, emaztea il da alargun gelditu zan Nikolas.

Andik onera zetorrenean, etzuan ollaskorik eta iñolako okelik nai izaten. Ameriketan naikoa jana zala esaten zuan. Fruta, berdura ta olakoxeko gauzak gustatzen zitzaizkan. Gari-alea, berriz, gordiñik jaten zuan.

Azkenekoz, ta emen betiko gelditzeko, bere anai Juan Jose il da gero etorri zan, 1954'gn. urtearen ondoren, beraz.

Etorri ta bere illoba Lorentxarekin ezkondu zan, Donostia'ko San Bizente parrokian, 1958'gn. urteko Ilbeltzaren 10'an. Naparroa'ko Lodosa'ra joan ziran bizi izatera. Bañan andik laister, pasiatzera atereak zirala, ondo-eza Nikolasi egin ta 1958'ngo. Otsaillaren 20'garrenean il zan.

ANJEL

Bere bi anaiak baño gutxiago jardun izan zan bertsoan, bai kantuz ta bai idatziz. Guk

ez degu jaso al izan aren iru edo lau bat bertso baizik; bertsolaria zala jakiteko doi-doia, beraz.

Errenteria'ko Otsazulueta baserrira ezkondu zan. Emaztea, bertako alaba zan. Inazia San Sebastian zeritzan. 1917'gn. urteko Urriaren 11'an esposatu ziran.

Amalau seme-alaba izan zituzten: lau, txikitán illak; amar, gaur ere bizi diranak: Juan Mari, Jose, Bizente, Antonio, Pilar, Fermina, Pilar Anjeles, Beatriz, Rosario, ta Maria Anjeles.

Bertso zaarretan izugarri zekiana omen zan.

1961'gn. urteko Apirillaren 9'an il zan, *bronconeumonía* gaitzarekin, 75 urterekin.

JUAN JOSEREN SEMEAK

Bañan Saiburutarren bertsolari-arraza etzan gizaldi artan bukatu. Juan Joseren iru seme, Juan Mari, Anjel ta Jose Mari, liburu ontarako bertsorik geien eman digutenak alegia, bertotan dakitenak dira.

Anjel ta Jose Mari, lagun-artean ez-ezik, plazetan ere kantatuak dira, aspaldi lan orri utziak badira ere.

Bañan ez digute berak kantatutako bertso

bakar bat ere eman. Ez dirala oroitzen diote. Egia ala aitzekia dan ez jakin...

Jose Marik bertsoak jarriak ere baditu Luchia ta Gartziarena'ren aizkol-apustuari buruz. Bañan papera etzan publikatu, ta berak idatzia galdua da.

Juan Mari da, plazan iñoiz ere ez ta lagun-artean gutxien jardun izan dana. Ala ere, aren bertso bat jaso degu, bere anai Jose Marik emanda. Ta, gerorako utzi gabe, emen bertan jarriko degu:

Bein batez, eizera joan zan Juan Mari ori kuadrilla batekin. Lagun batek ollagorrari tira ta uts egin zuan. Orduan Juan Marik tira zion ollagor orri berari, ta bai il ere. Gero, illuntzean, meriendatu ondoren, txandaka bertsoan asi ziran, bertsoa botatzen etzuanak bi litroko txarro sagardoa multa izango zuala esanaz. Ta, era ontan beartuta, onela kantatu zuan Juan Marik, bere txanda etorritakoan:

Eizeko kontuak
badakit zer dian:
ollagorra altxia
bastante aldian,
bi tiro tira bañan
aurrera ordian;
orain zintzillik zio
gure sukaldian.

Beste batez Argentina'ko osabak bertso
pare bat bialdu zien bere eskutitz batean.
Bertso oietako bat onela zan:

Esperantzik etzazu
beñere galdu,
orain nik enkargu bat
biaizut bialdu:
usteik gutxiyenan
osaba da eldu,
sagardo ona oiek
biaute azaldu,
eta etxeko atia
neretzat zabaldu.

Ta beraren illoba Juan Marik erantzun
zion beste bi bertsoekin. Auetako bat ona-
ko auxe:

Ezkenduke egiñ nai
iñola kaltia,
uste eztan gauzakiñ
gertatzen baitia;
pobriak gera baño
bai borondatia,
zabalikan daukagu
etxeko atia,
eta barrika ere
sagardoz betia.



JUAN JOSE LUJANBIO

"SAIBURU"

(1874-1954)

SOLDADUZKAN

Soldaduzka-denboran, Lesaka'n egin zuan Saiburuk bolara bat. *Estado Mayor* deritzana Naparroa'ko mendiak neurtzen ibilli baitzan.

Beren sarjentoak zor asko egiña zuan erriko tabernetan, eta ixil-ixilik ta iñori ezer esan gabe aldegin nai zuan andikan. Bañan Saiburu ta Donostia'ko bere lagun bat, Telleria, alkateagana joan ziran, eta bandua jo-arazi zioten, erritik bazijoazela adieraziaz, jende guzia jakiñaren gañean egon zedin.

Alkateak ala egin zuan; baita sarjentoa ere izugarri asarretu. Ta, tenienteagana joanda, biak, Saiburu ta Telleria, kalabozoan sarrarazi zituan. Egun batzuk an pasa ondoren libratu zituztenean, Saiburuk bertsoak jarri zituan. Beraren seme Juan Marik iru auetaz oroitu da:

- 1/ Alkatiari esan gendiyon
baguazela erritik,
ori aditu zuenian
egin zitzaion burutik;
aguazilla bandua juaz
pregonatu du erritik,
argatik orain tenientia
kabuarekin ondotik.

- 2/ Karabinero-tenientiak
orain Lesaka'n dagona,
kalabozuan gu sartutzeko
ark ekarri du ordena;
Telleria jua zan lenbizi
gero ni aren urrena,
agindutako tokian antxe
sartu ginduzten barrena.

- 3/ Tenientia or jarri zaigu
gorrotoz edo asarrez,
eta erriko agintariyak
gui laguntzeko ezerrez;
esaten zuten: "Oik ateratzen
eztegu izango errez!";
aguazilla *Poco-vale* da,
alkate jauna baterez.

Poco-vale, aguazillaren izengoitia omen
zan.

(1909)

BERTSO BERRIYAK

**SAREABURU'KO JUAN JOSE
LUJANBIO'K JARRIYAK**

1/ Aita misiyolariyen onran
nua bertsuak jartzera,
Jesus maitia, etorri zaitetz
orain neri laguntzera;
pekatariyai eman nai diyet
ontan zerbait aditzera,
infernurako bire lasaiak
saia gaitezen galtzera,
gure animik sartu ez dedin
diabruaren etxera.

2/ Milla beatzireun kunplitu eta
beatzigarren urtian,
Kristo zerutik jetxi zanetik
oraindaño bitartian;
misiyo on bi izan ditugu
Errenteri'ko partian,
esan digute konfesatzeko
Jaunaren borondatian,
pekatuaren mantxak kenduta
zeruan sartu gaitian.

3/ Misiyu oik biyek izan ditugu
predikatzera etorriyak,
desigu ori zeukatelako
parroku eta erriyak;
persona asko ikusirikan
pekatubari jarriyak,
kulpitotikan egin dituzte
oju ikaragarriyak,
ez geradela salbatuko
ez bagerade garbiyak.

4/ Aita Laskibar predikatutzen
zeñek ote du partuko?
Orren aurrian nori etzaio
biyotza oso lertuko?
Pekatu egiñen damutasuna
zeñek etzuben artuko?
Gizon bat ez da formalagorik
mundu ontara sortuko,
ori ez bada zeruan sartzen
iñor ez gera sartuko.

- 5/ Aita Aizpurua beti izan da
predikadore fuertia,
pekatariyak konbertitzeko
badauka borondatia;
orrek badaki nola garbitu
anima mantxaz betia,
pena aundiya ematen diyo
etsaiak eramatia,
orrentzat beti zabalik dago
zeruetako atia.
- 6/ Lendabiziko mandamentuan
Jaungoikua amatzia,
ortan faltarik bai ote degun
aski da begiratzia;
propositu bat firmiarekiñ
nai dute konfesatzia,
egiñ ditugun pekatubentzat
damutasuna artzia,
beste gauzarik ez luteke nai:
animak salbatutzia.
- 7/ Bigarrenguan iya egin degun
juramenturik alperrik,
kontsideratzen jarri gaitian
egin badegu okerrik,
lagunarekin geran denboran
edo igual da bakarrik,
blasfemiyakin eman diyogun
diabruari indarrik;
utsegiterik ez dadukanak
ez dauka esan biarrik.

- 8/ Blasfematzeko kostunbre aundiya
baldin badegu artua,
gure anima konta liteke
kalabozuan sartua,
igual berian sokakin edo
kate gogorrez lotua;
zer arriskotan arkitzen geran
atera zagun kontua,
itz gaiztuakin ofenditzian
gure Jaungoiko santua.
- 9/ Irugarrenak obligatzen du
begiratzeko mezari,
tenplo santuban sartu ta gero
herritzuketan ez ari;
berak mezarik entzun ez eta
galerazitzen besteri,
negoziyo au gertatzen zaigu
amaika zar da gazteri,
saiatu biet oikera txarra au
betiko galdu baledi.
- 10/ Laugarrengiak esaten digu
aita ta ama onratzeko,
nagusi eta etxeoandriai
errespetua ekartzeko;
pekatu ez dan gauza guztiyan
oieri obeditzeko,
zenbat alditan faltatu degun
atentziyua jartzeko
ori preziso egin biagu
il da zeruban sartzeko.

11/ Bostgarrengiak agintzen digu
iñor ere ez iltzia,
gorrotorikan baldiñ badauka
al dan lenena kentzia;
gaizto samarrak izan bagera
konbeni zaigu ontzia,
anaitasunez obeko degu
Josefetara biltzia,
zeñek naiko du bere anima
betiko kondenatzia?

12/ Seigarrengiak obligatzen du
lujuriyari uztia,
pekatu orrek arrapatzen du
zarra ainbeste gaztia,
naiz izan bedi senarra eta
igual da emaztia;
ain da pekatu izugarriya
mandamentu au austia,
ez da posible bertso batekiñ
guztiya erakustia.

13/ Zenbait pekatu ikusi diran
seigarren mandamentuan
posible ez da esplikatzia
biar dan fundamentuan;
obretan edo desioz ere
igual da pentsamentuan,
esamiñatu gaitezen ondo
bakoitza geren puntuan,
Jesus gugatik nola josi zan
bere gurutze santuan.

- 14/ Zazpigarrenak esaten digu
ezer ere ez ostutzeko,
edo lapurtu degun ordaña
jabiari biurtzeko,
ura bera edo beste ainbeste
lengo tokiyan jartzeko,
pekatu egindakuen
damutasuna artzeko,
ori preziso biar deguna
anima salbatutzeko.
- 15/ Zortzigarrenak obligatzen du
gezurrik ez esatia,
onetan ere obeko degu
kontu aundiya izatia;
testimoniyo z ondatu gabe
lagun projimo maitia,
uste ez degula gerta gindezke
mundu ontatik juatia,
gaiztuarentzat itxiya dago
zeruetako atia.
- 16/ Bederatzigarrena zer dan
zaudete esan artian,
projimuaren emaztiari
lajatutzeko pakian,
damutasunik izan ez dediñ
beste mundura juatian;
Aita San Pedro bere giltzakin
dago zeruko atian,
barrena sartzia nai degun denak
kontuz ibilli gaitian.

- 17/ Amargarrenak obligatzen du
besteren gauzak uzteko,
kontu aundiya izan biar da
mandamentu au austeko,
ortan kalterik egiten danik
zenbaitek ez du usteko;
Jesus gugatik konformatu zan
gurutzari josteko,
esan digute zer moduz bizi
zerua irabazteko.
- 18/ Mandamentubak pasa ditugu,
esamiñatu gaitian,
zerbait utsegin izango degu
amarretatik batian;
pekatu denak ondo eraman
konfesatzera juatian,
txikiyak esan, aundiyak gorde,
ori ez dabill fedian,
kontu zuzena entregatzeko
Jesusen tribunalian.
- 19/ Bakoitzak geren etxeko lanak
utzirik alde batera,
pekatariyak juaten giñaden
Aita oriyen artera;
oien onduan beiñ jartzen zanik
geiago ezin zan atera,
bederatzi egun pasa ditugu
Jaunaren borondatera,
guretzat berriz orlako urte bat
noiz etorriko ote da?

20/ Aurrera ezin segi nezake,
ontan biar det gelditu,
oraingua da ogeigarrena,
gusto dubenak aditu;
geren animak biar ditugu
albait ondo defenditu,
pasadizuak itzegin ditut
nai dubenak entenditu,
biyotzetikan barka dezala
iñor badet ofenditu. (1)

(1) *Bertso-papera*, "Imp. de la Viuda de Lancis",
Jose Antonio Berrondo, Erdiko-etxe, Errenteria.

Bertsolariya aldizkaria, 24-garren zenbakia, 1932'-
ko Otsailla'ren 28'an. Onek ala dio izenburuan: "*Aita*
Misiyolariyen onran 1909'an — Juan Jose Lujam-
bio'k jarriyak".

BERTSO BERRIAK

1/ Milla ta beatzi eun kunplitu ta
gañera amairu urte,
ni engañatzen ez baldin banaiz,
ez dira oso aparte;
bertso berriyak jartzera nua
ezkontza dan mediante,
pazientziya franko artu det
ontara naizen bitarte.

2/ Nere izatez'tarra naiz, (1)
bertan jaio ta aziya,
.....'eko neskatx batekin (2)
tratamentuan asiya;
bajatutzen dit osasuna ta
franko laburtu biziya,
bañan alare ez du logratu
berak nai duen guziya.

(1) Mutillaren erria.

(2) Neskatxaren erria.

- 3/ Neskatzaxa ori da 'tarra, (3)
orain â pasia, (4)
nik oraindikan ikusi dedan
okerreneko klasia;
enfermedade txarra daduka:
nobiyo ezin asia;
biyotza dauka mudakorra ta
mingaña franko luzia.
- 4/ Pixka batian tratatu degu
aingeru biren moduan,
ezertxo ere gauza txarrikan
etzan gure inguruan;
satisfaziyo asiya nintzan
ustez leku seguruan,
ez nuben uste oinbeste aize
zenduenikan buruan.
- 5/ Sinistatu ere ezin ziteken
orrelakorikan zanik,
saltsa ta droga galanki badu,
itz bat ez dauka zuzenik;
zazpi nobiyo izan ditu ta
ez du artutzen gizonik,
orrek neskazar geldituta're
ez du egingo gauza onik.

(3) Neskatzaren erria.

(4) Mutillaren erria.

6/ Itxurik asko badauka orrek,
gaztia eta bikaña,
inozentiak engañatzeko
modukua du mingaña;
zedorri ziñan lendabiziko
neri mandatu egiña;
orain bertsorik etzan izango
zuzen ibilli baziña.

7/ Besterik faltso egiñagatik
zedorri etzera fiña,
mutill gaztiak engañatutzen
orrenbeste alegiña;
lujan berriz badirurizu
Españi'ko erregiña,
zuk badakizu aixa gastatzen
bestek dolorez egiña.

8/ Erregiñ batek ainbeste gradu
badadukazu lujan,
altura igo al baziñezke
etzera egongo bajuan;
desio faltan etziñan, baña
ez nazu sartu zakuan,
nigatik libre gelditzen zera,
zabiltza nai zun lekuan.

9/ Orren mingaÑak apenas dauzkan
txit maratilla nagiyak,
maliziosa aundiyagorik
ez du mantentzen ogiyak;
iÑor nundikan engañatuko
dabiltza orren begiyak,
nik sinistuko baldin baditut
esan zintzake egiyak.

10/ Nerekin orla ibilli izan da,
probetxu gutxi atera,
ai, zenbait zoro saiatzen dira
beren buruben kaltera;
orregatikan biartu nau ni
zer dan zuzen esatera,
gaur bezela eztu izango gero
edozeÑekin aukera.

11/ Gonadun ori jua nadukan
persona ona batentzat,
ni baÑo askoz eskasagua
dala iruritutzen zat;
jeniyu ori dadukan arte
eztu bentajik beretzat,
miseri txarra seguru neukan
artu banuban andretzat.

12/ Orain artian izandu ditu
aiskire mutill gaztiak,
ontaz aurrera pasa biarko
dituzu buru-austiak;
ondoren txarra seguru dakar
aurretik gaizki astiak,
neskazartuta batere gabe
gelditu biar du tristiak.

13/ Batekikua galduagatik
billa liteke bestia,
orain mutillak neskaren faltan
luzaro egoten ezia;
neskazar edo trakets oriyek
obe da alde bat uztia,
zergatik nonai aukeran dagon
leguna eta gaztia.

14/ Zertan zabilta, dama maitia,
baztarrak orrela nasten?
saia zaitian jeniya oiek
al dezun lenena uzten;
orain artian baño fiñago
ezpaldin bazera asten,
kostako da ori senarrarekin
pasiatutzen ikusten.

15/ Biarritz ortan izandua da
retratatzeko ustian,
juan zan kotxian maxuratu ta
etorriya da bestian;
aditu degu nola ibilli dan
franko estadu tristian,
bueltan bizirik etorri da ta
konten da orrenbestian.

16/ Erretratua ateratzeko (5)
juana dauka furiya,
lenago ere izandua da
oraintxen beziñ guriya;
ez dago oraiñ iru urte bezin
leguna eta zuriya,
oraingotikan ez bada saltzen
akabo gure nobiya.

17/ Nere andregai izandubentzat
orra bertsuak atera,
orrekin penik artzen dubenik
munduan iñor ote da?
Arkitzen bada deitu nezala
nai duben leku batera,
gusto aundiyan juango naitzaio
errespuestak ematera.

(5) Bertso-paperak *errezatua* dio; dudarik ez da *erretratua* bear duala.

18/ Iya bi urte da nerekin
 tratatutzen zala asi,
 bitarte ortan beste seirekin
 neronek nuben ikusi;
 gure pasadizuak zer diran (6)
 orra nik adierazi,
 gusto badezu ara euskeraz
 bertso berriyak ikasi. (7)

(6) Paperak “*gure pasadizuak zer dan*” dio; guk, ala bear dualakoan, *diran* jarri degu.

(7) Bertso-papera: “Imp. Quintanilla. — Zarauz”, Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduma, Donostia'n.

Paperean ez da ageri Saiburu'ren izenikan. Bañan aren seme Juan Marik esan zidan bere aita zanak bazituala ezkontza galdutako bertso batzuek; mutillak gero bertso-paper-mordoxka bat ekarri ziola; ta aietako bertso bat gogoan zuala:

Neskatxa oritarra
 orainra pasia,...

Ta irugarren bertsoa kantatu zidan. Ortik somatu degu bertso auek zeñenak diran.

“BERTSO BERRIYAK ATERATZIA...”

Mutil batek, andregaiarekin asarretuta, onako bertso-sail au jarri-arazi zion Saibururi. Etziran inprentatu. Bertso auek, Saibururen semeen aotik ditugu:

Bertso berri-yak a-te-ra-tzi-a o-rain ja-
 -rri zait bu-ru-an, pa-sa-di-zu-ak es-pli-ka-tu-
 -az ko-me-ni di-ran mo-du-an; da-ma ba-te-kin
 a-si-ya ni-tzan us-tez le-ku se-gu-ru-an, e-
 -nu-an us-te o-rren fal-tso-rik i-za-ten za-nak
 mun-du-an.

- 1/ Bertso berriyak ateratzia
orain jarri zait buruan,
pasadizuak esplikatuaz
komeni diran moduan;
dama batekiñ asiya nitzan
ustez leku seguruan,
ez nuan uste orren falsorik
izaten zanik munduan.
- 2/ Lendabiziko asi giñana
San Inaziyo eguna,
esan ziraden: "Zu nai zinduket
bizi guziko laguna";
zeiñ etzuan engañatuko?
ain zeukan mingain leguna;
itzak ederrak zituen baña
biyotza eztu biguna.
- 3/ Etxera ere lagundu niyon,
ain zan bide egokiya,
gu juan orduko pronto zeguen
atia ondo irikiya;
esan ziraden: "Kuarto ontan det
lo egiteko tokiya,
zatozenian leioa jota
laister oietik jekiya."

4/ Urrango itza esan ziraden:
“Laister da Ama Birjiña,
Guadalupe’ra juateko banu
gastuak zeñek egiña.”
Ta esan niyon: “Jaiotzatican
ez naiz aberatsa, baña
nunbaitik ere sortuko al det
buel’tori egiteko aña.”

5/ Andikan laister preparatu zait
Lurdes aldera juateko,
biaji ori ez genduela
iñorentzako kalteko;
bestela beintzat etzuen orrek
tripik orrela beteko,
orduan ere konforme zegon
nere kontura jateko.

6/ Neskatxa ori or azaldu zait
diruriyela izarra,
neronek ere moztuta neuzken
illia eta bizarra;
gaztiarekin aspertu da ta
orain naiago du zarra,
toki onian enpleatu da
nere kariño pizarra.

7/ Señora orri esan biayot
belarriyaren ertzera:
“Zer aziyo egin dirazun
akordatutzen al zera?
Beste batekin esposatuta
orain sagardo saltzera...
gorputz gaiztuak ekarritzen du
bere anima galtzera.”

8/ Kalte aundirik eztiyo egin
sagardo saltzen astiak,
gaita oneko señora dago,
alaitzen ditu tristiak;
zerbait laguntza egingo diyo
batek ezpada bestiak,
gizona zarra artu du baña
juntatzen zaizka gaztiak.

9/’ko alaba konta liteke, (1)
bertan jaio ta aziya,
mutil gaztiak engañatutzen
aspaldi xamar asiya;
..... nola dan nere (2)
izena eta graziya,
.....
..... (3)

(1) Neskatxaren jaioterria.

(2) Mutillaren izena ta deitura.

(3) Bertso au ezin osatu izan zuten Saibururen semeak; ezta urrengo ere.

10/
.....
.....
.....

nerekin baño diruarekin
naiago zuen unitu,
orreatikan egin naiz ni
andrerik gabe gelditu.

11/ Kezka aundirik eztet artutzen
munduan mutilzartzeko,
bildur geiago idukitzen det
barrena penaz lertzeko;
amasei bertso jarri dizkizut
ondo goguan artzeko,
libertadia ematen dizut
bueltan ordañak jartzeko. (4)

(4) 1, 2, 3, 4, 6, 8, 10 ta 11'garren bertsoa, Jose Maria Lujanbio'k emanak; 5, 7 ta 9'garrena, Anjel Lujanbio'k emanak.

“ZURE AIZPAKIN NITZADELAKO...”

Beste aldi batez ere, sail luze bat jarri omen zuan Saiburuk, Naparroa'ko batzuek eskatuta. Neska mutillen arteko ixtiluren bat zan. Bertsoak inprentatu ta or nunbait zabaldu ziran paperetan. Ez degu, ordea, paper oietako bakar bat ere eskuratu. Emen jarri ditugunak, Saibururen seme Juan Marik buruan gorde dituanak dira:

Zure aizpakin nitzadelako
lengo batian juntatu,
ito biarrik ibilli dezu,
etziñan oso kontentu;
eta gañera eztiran gauzak
publikuari kontatu,
orra zuk ere bertso berriyak
nai badituzu kantatu.

Zure aizpari niyolako
lengo batian itzegin,
ito biarrik ibilli dezu;
etzôn zurekin atsegin;
alegiñian lagundu niyon,
ustez ez niyon gaitz egin,
nobiyo askok egingo dizu
beste orrenbeste utsegin.

Sail berekoa izatea seguru ez da, bañan
Saiburuk bazuan beste bertso bat, onela zio-
na:

Nola ezpaitan puskatu izandu
kontatuko det osotzat,
ta berak ere oraiñ artian
edukitu nau gaxotzat;
beñere enau probatu baño
tratatatutzen nau goxotzat,
orrek igual juzgatuko du
biligarrua *xoxotzat*. (1)

(1) Izengoitiz *Xoxua* esaten baitzioten.

(1932)

OROIPENA

Doñua: *Limosnatxo bat eskatzen...*

- 1/ Gau eta egun pentsamentu bat baldin badauka buruban, gizonak eztu trankildaderik beñere izaten orduban; iru kantore galdu zaizkigu (1) urte beteren barruban, eta gu ere laister gerade aien oraingo moduban; erregutzen det aien animak gerta ditezen zeruban.

(1) Iru kantore auek, iru bertsolari auek alegia, Frantzes-Txikiya, Asteasu'ko Aranburu-berri ta Oiarzun'go Zurko "Kaskazuri" ziran, irurak 1931 urte-barruan illak.

- 2/ Nere barrengo sentimentubak
 nua esaten aстера,
 jaio giñan da ill biar degu,
 betiko etorri ez gera;
 denbora labur jua biar degu
 mundub'ontatik bestera,
 egin ditugun obra ederrak
 Jesusi erakustera;
 saia gaitezen alegiñian
 zeruba irabaztera.
- 3/ Aize txar baten mendian dago
 gure izate guziya,
 ori gelditu ezkeroztika
 akabo gure biziya; (2)
 iruritzen zat ote daukagun
 franko laburtzen asiya,
 baño alare askok nai degu
 etsaiarekin auziya;
 beldurrez nago galduko ote dan
 lenago irabaziya.
- 4/ Munduban asko bizi gerade
 alkarrengana gorrotoz,
 atsegabetan negar samiñak
 orrengatikan badatoz;
 bata bestia maitatutzia
 obeko genduke askoz,
 zitalkeririk gabetandikan
 umil eta errespeto;
 Jesus maitia, premiyan gera,
 guri laguntzera atoz.

(2) Paperak, *akabo da...* dio; guk, sobra dagoalakoan, *da* ori kendu degu.

- 5/ Uste gabian gerta litezke
gure odola oztuta,
gaur iñor gutxi izango gera
gauza orrekin poztuta;
iruritzen zat gure biziya
dagola franko moztuta,
baño alare askok nai degu
diabruakin nastuta;
Jesusengana biyur gaitian,
ez dago gutzaz aztuta.
- 6/ Gugatik zenbat sufritu zuben
gure Jaungoiko maitiak,
berekin zauzkan odol guziyak
ditu lurrera botiak;
pena ematen ziyon gure animak
leku txarrera juatiak,
gurutziaren indarrarekin
zabaldtu ditu atiak;
kaburik edo neurrik eztu
Ark digun borondatiak.
- 7/ Jesus maitiak ezpalu eman
guregaitan pausorik,
guk ez genduen aditzerikan
zeruko usai gozorik;
bide luzian aldapa goiti,
gurutzia ezin jasorik,
Zireneoko Simonek bestek
etziyon egin kasorik;
ori sinistu nai eztubenak
eztute fede osorik.

8/ **Beti izan naiz pekatariya,**
eztet ukatzen nererik,
baño eztet galtzen utzi nai
Jaungoikuaren legerik;
ortan etzaigu konformatutzen
dotriña ikasi gaberik,
ezta posible sinistutzia
ezpaldin badu federik;
gaixtuarentzat iñondik ezta
zerubetara biderik. (3)

Errenderi'n 1932'ko Ilbeltzian.

(3) *Bertsolariya*, n.º 18, 1932'ko Ilbeltza'ren
17'an.

(1934)

BERTSO BERRIYAK

Beren aita zanak jarriak dirala esanaz, bertso-sail ontako bostgarrena ta seigarrenaren erdia eman zidaten Jose Mari ta Anjel Lujanbio'k. Zori onez, egillea nor zan jakin gabe bada ere, kanta-papera etxean neukan. Moldiztegi-izenik ez du, bañan Errenteria'ko Makazaga'renean jaso nuan, ta emen inprentatua izango da.

Oiartzun'en eskandaloren bat gertatua omen zan. Ta, ondoren, Saiburugana etorri omen ziran, bertsoak jarri-arazteko.

1/ Milla bederatzireun da ogei ta
amalaugarren urtian,
eskandalo bat izandu degu
lagun askoren artian,
obekiyago konprenditzeko,
Oiartzun'ako partian;
ez dago errex agontatutzen
gizona oriyen tartian.

2/ Deklaratzeko ez daukat lotsik,
Iñaki daukat izena,
Oiartzun'en jaiua *eta* (1)
bertan bizitzen naizena;
Franzisko konserjia da
gugatik asko esana,
modu orretan ez da tratatzen
kulpa gabeko gizona.

3/ Nere lagunak ere badaka
zerbait itzegin-zalia,
nik ez nituke esango baldin
gezurra izan balia;
Franziskorekin izketan zeukan
izugarrizko pelia,
gure Julianek tiratu ziyon
arrazoi gabe dalia. (2)

(1) Bertso-paperak *Oiartzun'en jaiua*; *guk eta* erantsi diogu, ola edo beste olako zerbait, moldiztegiaren erruz, faltako dualakoan.

(2) Emen bertso-paperak *arrazoirikan gabe dalia* dio. Luzeegi, noski. Au ere moldiztegiaren utsegiñen bat izango dalakoan, *arrazoi utzi* degu.

4/ Julian orri esan biayot
gauza goguan artzeko,
guk ez dakagula gogorikan (3)
eskandalua jartzeko;
baña ez dala deretxorikan
kulpa gabiak jotzeko,
polizikuak ortxen daudela
gaixtuak kastigatzeko.

5/ Ori ez dalako ibilli
modu jatorrian,
orra eskandalua
nondik etorri'an;
kulpa gabe jotzen gi-
zona muturrian,
ez da indarren faltik
orren motorrian.

6/ Asi ezkerok pasadizuak
biar ditugu ebaki,
ori ez dagola ondo egiña
mundu guztiyak badaki;
kulpa gabeko gizona jotzen
ori ez dagola egoki,
itzegitia libre da baño
eskua geldi eduki.

(3) Emen bertso-paperak *gogorik* dio. Motxegi, beraz. Neurria osatzeagatik, eta moldiztegiaren uts-egiteren bat izango dalakoan, *gogorikan* jarri degu.

7/ Bistan egon bear dan gauza
zertako ari tapatzen?
aitzaki hilla or dabill baño
ezer ez digu topatzen;
modu orretan itzegitia
orri etzaio tokatzen,
kulpa gabeko gizonik ez da
sozidaretik botatzen.

8/ Barrenan dauden sentimentuak
orra kanpora azaldu,
kausan daudenak arrazoi ori
konprendituko ez al du?
kulpa gabeko gizona nola
sozidaretik bialdu?
aziyo ori egitezkeru
seta gaiztua biar du.

(1936)

BERTSOLARI-EGUNEKO BERTSOAK

1936'ngo Ilbeltzaren 29'an, ta 1936'ngo Ilbeltzaren 19'an, bertsolari-egun bi ospatu ziran Donostia'n. Baita ere bietara Saiburu agertu kantu-lanera.

Bigarrengoan amar bertsolari jardun ziran: Errezil'ko Zepai; Otsondo'ko Dargaitz; Andoain'go Etxeberria; Aldude'ko Harriet; Zestua'ko Uztapide; Errenderia'ko Lujanbio; Eltzaburu'ko Mutuberria; Azpeitia'ko Txapel; Irurita'ko Iriarte; Altza'ko Txirrita. Azkeneko au gelditu zan txapeldun.

Egun oietako zenbait bertso bi toki aue-tan argitaratu ziran: *Bertsolari-guduak*, 1935 ta 1936 deritzaion liburuan, ta *Yakin-tza* aldizkarian, 14 ta 20'gn. zenbakian.

Ez dakarte, ordea, Saiburuk 1935'ngoan kantatutako bertso bakar bat ere. Bañan 1936'ngoan kantatutakorik bai; ona emen dakarzkiten guziak:

Agurra:

Laguntza on bat eskatzen diot
gure Jaungoiko altsuari, (1)
eta beraren indarrarekin
ekin bear diot lanari.
Au baiño toki ederraguak
ez dira izaten nunari,
egun on bat desio dizutet
emen zaudeten danari.

Urrena txanda etortzean, onela kantatu
zuan:

Ai, nere biotzeko laguna,
zera euskaltzale piña,
batzuentzat ori da poza ta
beste batzuentzat miña.
Askok ez dituzte ezagutzen
gorria eta urdiña,
baiña gizonak ez du izaten
beti aldarte berdiña,
gaur akaso gaizki izango da
lengoan ondo egiña.

* * *

(1) Or goien aitatutako liburu ta aldizkarian, ez da bein ere *j* letra jartzen; orren ordez *y* jarria dago: Yaungoiko, yoan ta abar. Nabarmen dago Saiburuk etzuala olakorik esango, ta *j* jarri degu.

Bertsolariai gaiak eta puntuak ematen, Basarri ari zan, ta bigarren saiorako onako gai au jarri zien: “Gerra zitalen ondoren txarrak”. Txandaka jardun ziran iruna bertso kantatu arte. Saiburuk onako auek bo-ta zituan:

Gerra-kontuan ni aritzea,
ongi pentsatu ezkeru,
nere esanak agertu eta,
ori ez da misterio.
Egun batian bajatu giñan
gorrotatuz ezin geio,
anaiak igual ikusten dira
alkarrerren kontrario,
eta orrela jarriak ditu
gerra dezula merio.

Ni toriatzen asko ari dira
geientsuenak alperrik,
Euskalerrian ez degu bear
iñondikan ere gerrik;
iñortxok ere ez degu maite
ez frantzes eta naparrik,
nunai anaiak bat egiñian
—ez gera geok bakarrik—
danak pakean bizi gaitean,
ez degu gerra biarrik.

Gure Jainkoak ematen die
zintzo dabilzanari,
ura naikoa, ibilli dedin,
errota umillenari;
orain guk zuzen joka daiogun
bakoitzak bere lanari;
arek graziak emango dizka
pakean dabilleenari.

* * *

Urrengo saioan puntuan jardun ziran. Sai-
bururi onako puntu auek jarri zizkion Ba-
sarrik, eta erantzun auek eman zituan:

Lujanbio adiskide
nolatan zabilta?

Besua elbarrituta
ementxe gabilta; (2)
ala ere kunplitu det
emandako itza,
xamurra uste nun ta
gertatu zait gaitza.

(2) Besoa lepotik zintzilika daukan oialtxo batez
estalia du. (Leen aitaturako liburuaren oarra.)

Zure alde oietan
zer dio jendiak?

Batzuek gizardunak,
bestiak gabiak;
ala ere kunplitu'itut
oraingo legiak,
asko ez dira izango
gu baiñon obiak.

Gogoan eukitzeko
gaurkoan eguna,

Izan ere olakua
pasatzen deguna,
jende alai eta
asko ezaguna,
ortan konten al zera
zu, nere laguna?

Bertsolari-sail ona
zaudete bildurik,...

Orduan ez daukagu
iñoren bildurrik;
ez badirazu jartzen
gai oso xamurrik,
egiaz jardungo det,
nik ez det gezurrik.

Aurtengo urte auxe
gogoan artuaz,

Guazen aurrera ere
bertsotan sartuaz,
orain guk al deguna
poliki sortuaz,
eziñean aguro
gerade bentuaz.

* * *

Urrengo saioan, ofizioak banatu zizkieten
bertsolariari.

Lujanbio zan ardozale; Harriet, Aldu-
de'koa, tabernari; ta Uztapide, sagardo-zale.

Onela kantatu zuten:

Harriet:

Tabernaria nauzu eta
orai nauzute mintzatzen,
arno-zalekin nola naizen
ene bizian portatzen;
gizon onak direla die, (*sic*)
dute segur markatzen,
bainan uraren plazer txarra
ez dute ongi kontatzen.

Uztapide:

Zurruteruak emen gerade
Donosti'ra etorriak,
eran nairikan ardo beltza ta
sagardo ori gorriak;
ementxen zuten botillakuak
Naparru'tik ekarriak,
doble kobratu nai liguke ta
il bear gaitu egarriak.

Lujanbio:

Gauza au nola dan deklaratzeko
batere ez det ajola:
neri gogotik gustatutzen zait
matsarekiko ardoa,
eta ez dizutet nik ukatuko
ardo-zalia nagola
ni nua emen tratatutzera
Jesukristoren odola.

Harriet:

Erran duzu baiña ez dut nahi
orai ere ezin etsi,
zuen gogoak argiro emen
bai ditut orain ikusi;
arinoa emen edan gogotik,
mintzatu ere xamurki,
pagatu gabe bi itz etxetikan (*sic*)
partitu zaizkit egesi.

Uztapide:

Onen tabernan sartu naiz ni gaur
arduaren aitzakian,
ni zurrutero ona nitzala
gizon onek bazekian;
sagardo mia zeukala eta
ardua saldu nayian,
bertsolariak ekartzen ditu
ardo onaren tokian.

Lujanbio:

Nere laguna, konporma zaitez
Juan Joserren esanian,
eta orduan jarriko zera
oso bide zuzenian;
kotsideratzen jartzen bazera
zeorrek nai dezunian,
orrek ura saldu nai liguke
arduaren izenian.

Harriet:

Eztakit nik ola den bainan
untaz bear da pentsatu,
bertzala ez nuke nahi
zuengatik zaiñatu; (*sic*)
ongi ikasten dutena
nahi dut nik pratikatu,
nahi badezu, omen goitik
eingo dauzut serbitu.

Uztapide:

Naiz tabernari Naparrua'ko
asiak daude burruka,
sagardo onen artu-emanak
beti dira diru-truka.
Kristau artean ezin liteke
egi au iñork e uka,
ai zer bertsuak bota leizkean
sagardo onak baleuzka.

Lujanbio:

Edari onetikan txarrera
dagan diferentzia
ez da izaten nolanaikoa,
artzazu pazientzia.
Kolore emateko aiña ardo
ta urez bete ontzia,
modu orretan ez dezu libre
izango kontzientzia.

Harriet:

Kontzientzia ez dut kargatzen,
errango dauzut egia,
beste medio emen bai dago
olan ondo ikusia;
ardo onetik gustatutzen zait
neri beti emaitia,
bertze aldean ohea dezu,
bertara yoan zaitia.

Uztapide:

Onen tabernan aspaldi ontan
ein det amaika bixita,
baiña badakit nolatan daukan
malezi txarraz jarrita.
Naiago nuke bere taberna
baldin baleuka itxita,
arduen truke ura saltzen du
kontzientzia utzita.

Lujanbio:

Denbora asko zan zure tabernan
ez nitzaizula izandu,
emen zer pasatutzen ote dan
jendiak pranko esan du.
Martxa okerra utzi zazu ta
egin zaitez zu zuzendu,
gusto aundian joango giñake
ona jarriko bazendu.

Harriet:

Benturaz ala diteke baiña
oaintzi oso naiz oartzen (*sic*)
yendia ez dala len bezela
ene etxera etortzen.
Beti ari dira auzoko
taberna geien aldatzen,
badakite ez duela deus e
zuegandik irabazten.

Uztapide:

Gizon onetxen pasadizua
esaten biar det asi,
giza-artean gaizki esana
sekulan ez det ikusi.
Tratukeritan gezurrez dabil
Jesukristoren igesi,
ola badua a zer gustua
emango dion Judasi.

Lujanbio:

Gauza onak deklaratzeko
batere ez daukat lotsikan,
zure etxera joan ta askotan
ateratzen naiz utsikan;
ta ez badezu jartzen tabernan
len baiño gauza oberikan,
berriz ere ez dezu izango
Joserengandik sosikan.

Harriet:

Meza ortan nai baziñan
ene laguna arakatu,
kondizionak obekiago
bete bear dituzu,
arno ona nai zuenian
eginen proposatu,
ene etxean bai daukazu
egiñen zuk pagatu.

Uztapide:

Sagardo billa joaten gera
guziok zar eta gazte,
taberna ontako pasadizua
esango dizutet laiste:
beti or daude adiskideak
nola igande ta aste,
urarekin kentzen dizkigu
sosak arduaren truke.

Lujanbio:

Gelditu gabe ari zerade
gauza zailik ta xamurrik,
gogo dubenak sinistu beza,
ez det esango gezurrik:
orrek urakin agintzen digu
nai negozio aundirik,
edan liteke andik suelto,
ez da mozkortu bildurrik.

AOTIK AORA

Garai artan bazan "Basakarra" deitzen zioten gizon bat. Mendian bakardadean bizi zan. Ortik zetorkion izengoitia.

Xexterua zan, eta sagatsa, urritza, lizarra eta xetogintzarako bear zituan beste gai asko ere, Saiburu baserriko basotik ostutzen zituan.

Jai-illunabar batean, Zamalbide'ko tabernara sartu zan. Saiburu bertsolaria ere an zan, ordea, lagun artean, ogi koskorra ta ardoa jaten ari zala. Ta Basakarra ikusita, bertso au hota zion bat-batetan:

Gure basotik ostutzen dituk
sagatsak eta urritzak,
eskatu eta emateko're
ez gaituk orren murrizak;
abertentziyan nik jarriko at,
ik nai dekena egin zak:
arrapatu ta preso sartzeko
pensamentuan gabiltzak.

Ta Basakarrak onela erantzun zion:

Zuk esan dezun arrazoi ori
nik eztet ederki jaso,
enuen asko pentsatzen baña
gogor dirazu eraso;
sasi tarteko sagatsagatik
sartutzen banazu preso,
ai, Juan Jose, gauza ederra
eztezu egingo oso.

Bertso pare au, Pello Zabaleta zanak eman zidan. Bañan ezagutu zuten askok, Basakarra olako bertsorik kantatzeko gauza etzala esan didate. Bitatik bat izango zan beren ustez: edo an zan bertsolariren batek, Basakarraren izenean, kantatua izatea, edo bertsolariren batek asmatu ta Basakarrak buruz ikasi ta gero kantatua.

Bañan beste onela ere kantatzen dute:

Gure basotik ostutzen dituk
gaztañak eta urritzak,
auzuarentzat ez gaituk izan
i aizen bezin murrizak;
abertentziyan jartze'at eta
gusto dekana egin zak:
arrapatu ta kastigatzeko
pensamentuan gabiltzak. (1)

* * *

(1) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.

Bein batez, Oiartzun'en, bertsoan ari ziran bertako Zurko baserriko Kaskazuri, Prantsez Txikiya —onek Pedro zuan izena—, Txirrita ta Saiburu. Au izan ezik, beste irurak mutilzarrak ziran. Alako batean onako bertso au kantatu zien Saiburuk besteai:

Ezkongai daude Kaskazuri ta
Pedro ta Txirrita zarra,
beti juzkatu izandu dana
oso iruko azkarra;
nik banakike neska aundi bat
itxusiya ta baldarra,
ontaz aurrera irurentzako
basta da ura bakarra. (2)

* * *

Errenteria'n Txirritari omenaldia egin zitzaionean, onako puntua jarri ta onako erantzuna kantatu zuan Saiburuk:

Aizazu, Lujanbio,
asi zaitetz orra!...

Adituko dirazu
ezpazaude gorra,

(2) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.

emandako apuntia
ez nezaken borra,
ara oraiñ ordaindu
egindako zorra. (3)

* * *

Gerraz geroztik Donostia'n egin zan bertsolari-saio edo txapelketa batean, lenengo saria atera zuan Saiburuk. Onako au kantatu zuan asierako bertsoa:

Nere denbora allegitu da,
bertatik biar det asi,
orretarako laguntza on bat
eskatzen diyot Jesusi;
jendia pranko beira badago
nai baluteke ikasi,
prueba eginda juzgatutzen da
zein izaten dan nagusi. (4)

* * *

Ez dakigu bertso au zeñi edo nun kantatu zuan Saiburuk:

Nesketarako griña gaiztua
ekarri zuan gazterik,
edozer gauza eginda ere
libre dagola usterik;

(3) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.

(4) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.

zer demontretan ibilli biek
baldiñ eman nai eypadik?
derrigorrian kentzen bazaio
eztik izango gustorik. (5)

* * *

Ereñozu'n, San Antoniotan, azkenekoz
joan zan urtean, bertso bat onela kantatu
zuan:

Gazte denboran ez nitzan il da
ementxen nabil zartuta,
au bizi-modu penagarriya
jateko ezin sortuta!
Anai bat daukat Ameriketan
aberats purrukatuta,
aren ondora juan biarko det
aideplanuan sartuta. (6)

* * *

Ta, aldi artan bertan, beste bertso bat
onela bota omen zuan:

Badakizute San Antoniyo
maite dedala gogotik,
bañan alare gaizki esaten
ari zerate nigatik;

(5) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.

(6) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.

Errenteri'tik etorria naiz,
kasik Lezo'ko mugatik,
txanpon batzuek irabazi ta
txurrut egitiagatik. (7)

* * *

San Inazio egun batez, bertsoan ari ziran
Saiburu, Zepai ta Uztapide. Bi auek, mutil-
zar zeuden artian. Ta alabaren bat ezkatzen
zioten Saibururi ezkontzeko. Ortaz gañera,
Uztapidek kantatu zion, bera Saiburu base-
rrian azkenekoz izan zanean, idiak eta beiak
ilhez ta adarrez aundiak ikusi zituala... Or-
duan, Saiburuk onela erantzun zion:

Gure etxian eztaude beiak
postura ortako klasiak,
ez egon arren pentsuarekin
nai dan bezela aziak;
esan dirate adarrez eta
ilhez daudela luziak...
abek suitzako artzen baditut
il biar dizkit gosiak! (8)

* * *

(7) Anjel Lujanbio, Etxeberri, Alza.

(8) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.

Omenaldiko bertso-saioan Ondartzak bertso au kantatu zion Saibururi:

Nik ere zerbait esan biar det
sano badaukat mingaña:
bere denboran izandua da
bertsolariya bikaña;
irurogei ta amabi urte ta
oraindik gizon gordiña,
alper galanta izan biar du,
eztu aitortu nai baña.

Urrena Jose Joakin Mitxelenaren txanda zan, eta kantatu zuan bertsoaren erdia onela zan:

.....
.....
.....
.....
orreatikan alperra danik
beñere ez det aditu,
seme-alabak emen daude ta
bestela oieri galdetu.

Bertso orrekin saioaren bukaera zuten, bann Saiburuk beste buelta bat eskatu zuan. Etzegoan konforme Ondartzaren bertsoari ordafiña eman gabe. Damurik, kantatu zuanaren erdia baizik ez digute eman:

.....
.....
.....
.....
zerbait obeto espero al dezu
izketan ola asita?
ni aña gizon izango ote da
amar aur txiki azita?

Saiburu, amar seme-alaba izana zan.
Oietako bi, aur txikitan il zitzaizkan. Orre-
gatik zortzi azi zituan. Bañan berak amar
esaten omen zuan beti. Ildakoak etzitian,
beraz, aztutzen. (9)

(9) Juan Mari ta Jose Mari Lujanbio, Saibururen
semeak.



NIKOLAS LUJANBIO

(1877-1958)

AMERIKA'RI
ARA JOAN BAÑO LEEN

Soldauzkatik etorri ta Ameriketara joan bitartean, ogei ta amalau bertso jarri zituan. Zoritxarrez, iru auek ez beste danak galduak dira:

1/ Ameriketan iñork dionez
bada amaika leku on,
eta ara buelta bat egin gabe
iñola ezin naiz egon;
Europa'tikan lendabiziko
joan zan Cristobal Colón,
iru barkutan lagun artuta
bi ziento t'erdi gizon,
mariñelikan abillagorik
apenas izan zan iñon.

2/ Amerika'tik etorri dira
nigana milla bondade,
ango famak aditzen ditut
urrutixora joan gabe;
zazpi lengusu neriak ere
Buenos Aires'en an dare,
jan eta edan pasiatu ta
iya kasikan lan gabe,
ezta posible ni egotia
aien ondora joan gabe.

3/ Jose Agustin, zu or (1)
gozo zaude Hotelian,
ni gaizkiago ibillitu naiz
soldaduen kuartelian;
or ibilli naiz nere ordenak
kunplitzen egiñalian,
denbora danak ez ditut egin
oso leku epelian,
aize freskuak korritzen dute
Gazteluko egalian. (2)

(1) Bertso auek eman ziguna, Juan Maria Lujanbio, ezin oroitu izan zan emen falta danaz.

(2) Donostia'ko Urgull mendiko gazteluan kunplitu zuan.

ITXAS-BIDETAKO LANAK

Onako zortzi bertso auek, Argentina'tik
lendabizi bialdu zituanak dira:

1/ Uste gabian etortzen zaizkit
pentsamentuak burura,
predikatutzen astera nua
misio baten modura;
aita-amaren aldamenetik
atera nintzan mundura,
nola ez baitiran aiek etortzen
ni nabillen ingurura,
ostera bueltan juateko nago
utzi nituan lekura.

2/ Mundu ontara etorri nitzan
Jaunaren borondatian,
aita ta amak sortu ninduten
baserri polit batian,
Naparrua'tik oso aldian,
Gipuzkoa'ko partian;
gazte denbora pasatua det
geiena baso tartian,
aita-amaren aldamenetik
soldadu juan artian.

- 3/ Esan biar det gazte denboran
 zer nola ibiltzen nitzan:
 beti kantari baso tartian
 biligarruaren gisan,
 jai-egunian buelta txiki bat
 ematen nuen elizan,
 gure etxian kostunbre txarrak
 beñere ez dira izan;
 gaur Argentina'n arkitutzen naiz,
 nonbait ala komeni zan.
- 4/ Burdeos'tikan martxatu giñan
 bapore *Cordillerian*,
 Argentina'ko Buenos Aires'en
 ateratzeko idian;
 galdu etsiyak ibilli giñan
 Dakar aldeko parian,
 itxaso dana asarretuta
 etzan atsegin urian,
 egun batzuek triste xamarrak
 pasa ginduzen birian.
- 5/ Gure ontziya asi zanian
 parte bat betetzen uraz,
 jende geiena somatzen nuan
 keja edo errenkuraz;
 gu oinperatu nayian nunbait
 asarre zebillen Judas,
 Jaun Zerukuak oju egin ziyon:
 "Oien ondotikan zuaz!"
 Berak lagundu izan ezpalu
 galduko giñan benturaz.

- 6/ Itxasuaren erdiyan geunden,
urruti ziran bazterrak,
an iñon etzan bide zuzenik,
danak ziraden okerrak;
asi giñaden billatu nairik
zerura bide lasterrak,
baliosuak izandu ziran
orduko Pater-nosterrak;
oso estutik salbatu giñan,
Jaungoikoari eskerrak.
- 7/ Eguna batez negarra eta
malkua bazan ugari,
jendia asko ikusten ziran
salta nayian igari;
beste asko, berriz, koraje gabe
begiratzeko urari,
nola etxerik eta lurrikan
iñon ez baitzan ageri,
orduan ziñez erregututzen
gendiyon Jaungoikoari.
- 8/ Askorentzako zori gaiztuan
Amerika'ko Indiyak,
bire abetan pasatzen dira
franko desgrazi aundiyak;
inbiri gaiztoz betiak gaude
gutxiyenan erdiyak,
estiak piskat beteagatik
beti gosiak begiyak,
danak aberats nai ta ezin izan,
abek dira komeriyak! (1)

(1) Juan Maria Lujanbio, Errenteria.

EZKON-BEARRA, LANA,
TXIRRITA TA ABAR

Or ba-da len-gu-su-a e-meni-zan-du-

-a, tan-bo ba-ti-an be-yak jex-ten e-gan-du-

-a; ark e-san-go di-zu-te no-la dan man-du-

-a; da-mu-tu a-tza-yo-ken gaz-tei-kez-kon-du-

-a: be-rr-o-gei-ur-te-rar-te ez-ta be-ran-du-a.

1/ Or bada lengusua
emen izandua, (1)
tambo batian beiak (2)
jeixten egondua;
ark esango dizute
nola dan mundua,
damutu zitzaioken
gazteik ezkondua,
berrogei urterarte
ez da berandua.

2/ Mutilla franko bada
nere baztarrian,
urte asko dutenak
beren bizkarrian;
ni ere pasatu naiz
ogei ta amarrian,
asko gaude andria
artu biarrian,
berrogei urterarte
patxara ederrian.

(1) Lengusu au emaniarra zan, an izandu ta onera etorria.

(2) Tambo = bei-talde bat duan etxea.

3/ Argentina'n ez dira
lan danak politak,
aldegiten digute
noizian bein gaitak;
ez gaitu mantendutzen
pruma eta tintak,
esango det zer diran
gure erremintak:
paziya ta padera
eta kanibitak.

4/ Iñork egiten badu
Nikolasen galde,
Universal'en dabil (3)
sukaldez sukalde,
bere lanak egiten
suagandik alde;
jana sobratutzen zait,
ardua debalde,
nai dedan aña eran
goiz ta arratsalde.

(3) Nikolas, Ameriketan bizi izan zan denbora gu-
zian, *Hotel Universal*'eko sukaldean egin zuan lana.

5/ Argentina'tik joanda
aurten Donostiya'n
euskaldun bat egon da
udara guztiyan;
bueltan etorri zaigu
ostera ontziyan,
bertsolarien nota
eman dit itz biyan:
Txirritak nola dauzkan
danak bere azpiyan.

6/ Txirrita jaiua da
Ernani'ko Latze'n,
eskribitzen ez daki,
oso gutxi letzen;
gaztetan aritzen zan
artua jorratzen,
nunbait etzuen andik
naikua sobratzen,
gero ikasi zuan
arriya labratzen.

7/ Esan dedan bezela,
jaio ziñan Latze'n,
Nikolas Lujanbio
berriz Abillats'en;
lengo fuero maitiak
zaizkigu goatzen:
Don Juan Urbietta ere
angua omen zen,
lau probintzi kintatik
libratu ta il zen. (4)

8/ Apellidu batekuak
gerade ni ta zu,
aitak anaiak ziran,
semiak lengusu;
zu eskolarik gabe
egin ziñan maisu,
alare denak baño
geiago dakizu,
jendeak argatikan
oinbeste nai dizu.

(4) Juan Urbietta, Frantzia'ko Franzisko I erregea preso arrapatu zuana, Urumea erreka-zuloan jaioa zan, Ereñozu'ko ballaran, Txirrita ta Saiburutarrak jaio ziran etxeetatik gertu xamar. Leengo fuero zaarren denboran euskaldunak etziran soldauzkara joaten. Nikolasek d'ionez, Urbietta'k eskatu ta iritxi zuan ori.

9/ Premiyo bat ekarri
omen du Zarauz'tik,
eta auskalo zenbat
ura ezkeroztik;
sekula eztala izan
orrelako festik,
orrek abildadia
olaxe berez-tik, (5)
beintzat kolejiyotik
ekarriya eztik.

10/ Bertsoak jarri ditut
Mar de la Plata'n,
Errenteri aldera
bialtzeko kartan;
arkitzen bazerate
diruaren faltan,
abundantzi aundiya
da Ameriketan,
baforia beteta
sarri or naiz bueltan. (6)

(5) berez-tik: berez dik.

(6) 7'garren bertsoa, Jose Maria Lujanbio'k emana; beste guziak Juan Maria Lujanbio'k emanak.

ANAI ANJELI

Bertso auetan aitatzen dan Anjel ori, Nikolasen anaia zan, senideetan gazteena. 1907'garren urteko kintakoa zan, bañan libre gelditu zan. 1909'garren urteko udaran Melilla'ko gerra asi zan; Anjelek soldauzkan bear zuan garaian, beraz.

- 1/ Bertso bi jarri bear
dizkat Anjeli're,
beltzak Marrokian
etzaudek aiskire,
asarretu zaizkigu
bastante guri're,
ez baintzan atera
kintotzatik libre,
oien igesi laister
emen intzan i're.
- 2/ Izugarriyak dituk
moro oien ontziyak,
laguntzen omen ziek
aieri Frantziyak,
pasatzen omen zizkak
armak ta jantziyak,
sarri bi milla urte
Judasek utziyak,
erdibana dituzte
nunbait ganantziyak. (1)

(1) Juan Mari Lujanbio'k emanak. Iru bertso bertso omen ziran, bañan irugarrenaz ezin oroitu izau zan.

ANDOAIN'GO JULIA

Leen ere esan degun bezela, Nikolasen eskutitz guziak galduak daude gaur egunean, aietako bat bakarra izan ezik, onako au alegia. Au izan ez balitz, Nikolasen letrarik ezagutzerik ere ez genduan izango. Aren illoba Mariagandik —Zelaialde, Alza— jaso degu.

Gañerako bertso guziak, illobak buruan gorderik zituzten bezela artuak ditugu; aiek emanak dira, beraz. Onako auek, berriz, egillearen idazki batetik ditugu; Nikolasek berak emanak.

Julia dalako bati jarriak daude. Andoain'go alaba zan, ta neskame zegoan, Nikolas sukaldari zegoan ostatu berean, *Hotel Universal*'ean.

Ona bertsoak:

1/ Julia etorri zait
lenguan etxera,
borondate guztiyan
saludatutzera;
kariñorik gabeko
neskatxa etzera,
argatikan nijua
bertso bi jartzera.

2/ Au da etxeko andriak
esan ziratena:
“Nikolas, mugi zaituz
al dezun lenena;
Julia ortxe dator
bederan barrena,
zuaz itzegitera,
baliyo du pena.”

3/ Aspaldiko kontuak
badauzka goguan,
eta esan zizkiran
batzuek lenguan;
biyotza gelditu zait
kariño beruan,
ikusirik nolako
polita zeguan.

4/ Neskatxa fiña zera
eta kariñosa,
mutil zintzo batentzat
oso apraposa;
nere nobiya dala
zabaldu da boza,
egia dalakuan
au da nere poza!

5/ Neri esan dirate
zuk esan dezula
biyotz-biyotzetikan
maiteko nazula;
fraile sartzia etzait
gustatu sekula,
iduritzen zait zerbait
egiñgo degula.

6/ Nik zure kariñua
sartuba det fiñtzat,
biyotzaren ondotik
atera eziñ zat;
gure ezkontza dago
kasikan egiñtzat,
Mar del Plata'n jendiak
ala diyo biñtzat.

7/ Kolore zuri gorri
ederrak daukazki,
ezagun du gorputza
ez daukala gaizki,
lanian ere oso
pizkorra da noski...
Andoain'go alaba
izatia aski.

8/ Lengan artu ditut
Juliaren famak,
txit nexkatx ona dala
esan naute danak;
egiten omen ditu
sekulako lanak,
maitatuko zaituzte
aitak eta amak.

9/ Asko ikusten dira
oraiñgo mutillak
atorrante aundiyak
eta kajelillak, (sic)
izaten duten piska
gastatzen abillak;
oso banakak dira
zintzo ta umillak.

10/ Konformatzen bagera
biok ezkuntzeko,
madrina nork egiña
bada zuretzako;
etxeko andriak dio
ari abisatzeko,
txit borondate ona
dute guretzako.

11/ Biok ezkondutzeko
asiko bagiña,
padriñua're badet
lenguan egiña,
diru asko duena,
oso gizon fiña;
ongi portatuko da,
oi gauza jakiña.

12/ Amargarren urtia
det emen naizela,
maite naute etxeko
seme bat bezela;
beñere ez naiz izan
jenioz ustela,
uste det nere berri
badakizutela.

13/ Neska onak atera
dira Andoain'dik,
berriz ere izango
dira an oraindik;
zuk utzitzen banazu,
beste bat berendik
angua artuko det,
al badet iñundik.

14/ Gu nola bai geraden
bertsolari-kastak,
kantuz atera ditut
ezkuntzaren muestrak;
biotzeko Julia,
orra egiñ festak,
aritu nai nituzke
oben errespuestak.

ARGENTINA'KO NESKATXAK

Argentina'n badabiltza
neskatxa-kuadrillak,
tontuak engañatzen
bastante abillak;
soñeko motzak eta
bistan pantorrillak,
petxuaren gañian
oien lore-pillak!...
eroturik dabiltza
oiekin mutillak.

Neronek ikusi det
lengo igandian
neskatxa oiek nola
ibillitzen dian;
bi zentabo etziran
ariyen mendian,
mutillen bolsillotik
buelbaka tranbian...
Jaungoikuak badaki
noraño juan dian. (1)

(1) Juan Maria Lujanbio, Erreterria.

NIKOLASEN JAKIAK

Ni Ernani'ko semia naiz ta
euskaldun puru-purua;
jan-eranian eman dirate
aberatsaren gradua,
arkumiari atzia janda
zakurrarentzat burua...
eun urtian desio nuke
olako bizi-modua!

Olluari're billatzen diyot
nun daukan pusdik onena:
aurria baña askoz obe du
atze aldeko laurdena;
nausiyak ere ematen digu
asko jateko ordena;
eztu gosiak bereala ilko
aukera ori duena. (1)

(1) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.

(1913)

TXIRRITARI

Bein baño geiagotan bialdu zizkioten alkarri bertsoak Txirrita ta Nikolasek. Arek oni bein batez bialdutako saillean, onela bukatzen zana ere bazan:

kolore gorriyak,
liraña gerriyak,
ondo emango dio
traje berriyak. (1)

Txirritak berak beste batez bialdu zizkiotak ere galduak dira, puntu auek izan ezik:

.....
.....
.....
.....

Abuztuan ditugu
funtziyo aundiyak,
zentenariyuaren
oroipengarriyak,
espero zaituztegu
Agustin ta biyak.

(1) Jose Ramon Erauskin, Txirritaren illoba, Gazteluene, Alza.

Zentenariyo ori, inglesak Donostia erre zuteneko eungarren urte-muga zan; 1913'garren urtea beraz.

Nikolasek onako auek bialdu zizkion Txirritari, andik onera, ordañetan:

1/ Atzo goizian etorri zaizkit
etxera bertso berriyak,
Gipuzkoa'tik Argentina'ra
Txirritak berak jarriyak,
Mar del Plata'ko euskaldunentzat
dira txit gustagarriyak;
naiago nuke alkarren onduan
bizi bagiñake biyak,
nere buruan aldatutzeko
zure euskeraren giyak.

2/ Esan bezela, etorri zaizkit
bertsuak atzo goizian,
Gipuzkoa'tik Argentina'ra
franko biraje luzian;
beretatikan enteratu naiz
Txirrita nola bizi'an;
len jakiñaren gañian negon
abek nola eldu zian,
aurreko kartan Saiburu'tikan
Josek abisatu zian.

- 3/ Nere lengusu Jose Manuel,
bertsolarien artzaia,
Ameriketan askok daukagu
zurekin itzegin naia;
Jaun Zerukuak eman dizute
aurten txit urte lasaia,
zer gozo dauden gure Ernani,
Errenteri ta Pasaia!
Mar del Plata'tik aditutzen det
orko sagardo-usaia.
- 4/ Produkto onak omen ditu aurten
Gipuzkoa ortan lurrak,
danak betiak omen dirade
sagar, intxaur eta urrak;
aieri beira pozez zoratzen
aitona bizkar-makurrak,
sagardoz herriz freskatu eta
lasaiturikan ezurrak;
gizon formalak abisatzen dit,
apenas dira gezurrak.
- 5/ Txirritarenak Otañorekin
lenago Xenpelarrenak,
Ameriketan juzgatu diran
bertsolairik ederrenak;
ariyen markak iya jo ditu
gure anaia zarrenak,
Bakallero ta Udarregi're
ez omen ziran txarrenak,
iñor mendratzen ez det ari nai,
ederrak zerate denak. (2)

(2) Juan Maria Lujanbio, Errenteria.

OLEGARIO, TELLERI-TXIKI, ILLOBA

Iru bertso auek eskutitz batean bialdu zitu-
tuan: lenengoa, Ernaniko Olegario bertsola-
riarentzat; bigarrena, Errenteriko Telleri-
-Txiki bertsolariarentzat; irugarrena, etxetik
eskutitzak bialtzen zizkion illobarentzat:

1/ Gaitan egongo dira
Olegariyogan,
zarra izanâtik zer
zelebria dan;
bertsolariya dala
ezagun du karan,
lastima lagun txarrak
jarri zaizka traban;
urtiak espaldan
eta anka baldan
korritzeko maldan,
ez det uste igual dan;
Jose, galde zaiozu
pizkortu al dan.

2/ Jose Maritar bat Te-
lleri-txikin bazan,
broma bat pasatzeko
zer laguna zan!

Askotan ibilliya
koplariyen masan,
noiznai teatruetan,
tabernan da plazan;
mutil azkarra zan,
ona atera zan,
notiziya esan
aztutzen ez bazan,
bertso onen ordaña
bialdu dezan.

3/ Abisuka ari zait
illoba maitia,
baña ez da posible
aurten juatia;
asko estimatutzen
det borondatia,
merezi dute milla
esker ematia;
sagardo fuertia,
indarrez betia,
ori da urtia
eta suertia!
Lengusuari eman
nere partia. (1)

(1) Lengusu bat andik onera etorri berria zan. Orregatik dio bere sagardo-partea ari emateko. Lengusu ori andoaindarra zan, Lekuonategi baserrikoa.

Iru bertsoak, Juan Maria Lujanbio'k emanak.

GAZTETAKO KONTUAK GOGOTAN

1/ Nikolas Lujanbio
iñoiz dabil gaitan,
osasun onez nola
arkitzen baitan;
kontatutzen du zenbait
igande ta jaitan,
eta astian ere
bai zenbait alditan:
lenago txikitan,
euskal mendi aitan,
askotan ebitan
ezin pasaz loitan
ibillitzen nitzaden
lautatik bitan.

2/ Bost bider akordatzen
naizen Europa,
an asko lanarekin
beti borroka:
goizian jaiki eta
zelaira saltoka,
bizkarrian atxurra
sega eta soka;
udarako epoka
beti apuroka,
naiz ari gogoka
buztiñari joka,
zail da dirua sartzen
bolsan duroka.

3/ Gipuzkoa aldeko
mendi ta basuak,
ez dirade, ez, oso
bentajosuak:
gutxik ibiltzen ditu
an traje osuak,
oñetakuak ere
ez kuriosuak;
goguan jasuak
ango erasuak,
gogorrek besuak,
bizi penosuak;
askori gertatutzen
zaizkan kasuak.

4/ Gipuzkoa ortan bada
zeinbait lar da ote
neri emandakua
zenbait azote;
odola neriyola
noiznai derrepente,
beste geiagok ere
alaxen diyote;
sartzen ziran fuerte
ezurra jo arte;
ez neukan aparte,
mamiz ezin bete;
an bizi dan pobria
beti arlote.

5/ Gipuzkoa aldeko
baso ta mendiyak
ez dirade, ez, oso
gustagarriyak;
iñoiz ibiltzen giñan
aita eta biyak
basuan urraturik
geren alderdiyak;
an galtza berriyak,
amak ekarriyak,
goizian jarriyak,
autsi elorriyak;
arratserako kasik
larru gorriyak.

6/ Aparte bizi arren
biyak alkarrendik,
beti kariño fiña
gure barrendik,
notizi onak datoz
Txirrita orrendik,
nik ere ez det txarrik
bialtzen emendik,
nere bolsak on dik
etorriya andik,
zenbat gizon aundik
propina eman dit,
geiago ere espero
ditut oraindik.

7/ Abisatu bear det
nere sentidua,
zuek ikusitzeko
nik desiua,
uste det badedala
zerbait motibua;
Txirrita Lujanbio
nere queridua,
koplari bibua,
izan girua,
bostek txalo jua
omen dago ua,
biyok iguala degu
apellidua.

8/ Ni andik etorririk
dozena bat urte
urrengo Azaruan
izan biaute;
oraindik arkitzen naiz
lanerako fuerte,
urte askuan ola
desiatzen nuke;
pazientziz zaute
ni ara jua arte,
galdetzen badute
esan zaiozute,
pariente danakin
kunpli zazute.

9/ Iñoiz aditurikan
Txirrita nor dan,
askok galdetutzen du
gizon oi non dan;
nik esaten diyotet:
“Donostiyan fondan,
—auskalo aren galdez
ara zenbat juañ dan—
kantua zer lan dan
erakusten du an,
dirua eraman,
propina ona eman,
aberastu dedilla
oraingo txandan.” (1)

(1) Juan Maria Lujanbio, Errenteria. Amabi bertso omen ziran guzira, bañan ezin oroitu izan zan falta diran oietzaz.

DONOSTIA, TXIRRITA

Gu-re Do-nos-ti mai-ta-ga-rrí-ya Kan-ta-
-bri-ya-ren lo-ria a, zu-re berdñik i-nun ez-
-te-zun a-pa-ña ta do-to-ri-a Ar-jen-ti-na-
-tik as-kekpa-sa du zu i-kus-te-ra bi-di-a
ba-ña i-ku-si zai-tuz-ten da-nak in-bi-riz
e-to-rrí di-(r)a.

1/ Gure Donosti maitagarriya,
Kantabriya'ren loria,
zere berdiñik iñon ez dezun
apaña ta dotoria;
Argentina'tik zu ikustera
askok pasa du biria,
bañan ikusi zaituzten danak
inbiriz etorri dia.

2/ Argentina'tik Donostiya'ra
juanak badira apropos,
nolakua dan ikusitzera
baporietan itxasoz;
Buenos Aires'en aldian ori
polita omen da askoz,
ango etxe ta palaziyuaz
danak arriturik datoz.

3/ Donostiya ortan bai omen daude
obrak dotore egiñak,
pareta gorri marmolazkuak
eta tellatu urdiñak;
Gipuzkua ortan izan biaute
ofizialiak fiñak,
mundu guziyan fama badute
ango arotz ta argiñak.

4/ Jose Manuel Txirrita ere
ofiziale egin zan,
pare gabia ateria da
bertsuetan da argintzan;
ogei eta bi urtetarako
onenarekin berdin zan,
andik aurrera aren markara
iñor iritxi ezin zan.

5/ Eskallerak ark egiñak daude
Errenteri'ko elizan,
jarri zituen amona xarrak
aixa igotzeko gisan,

.....

.....

jakin nai nuke aspalditxuan
zer moduz ote zabilzan. (1)

(1) Juan Mari Lujanbio'k emanak. Zortzi bertso omen ziran, bañan falta diran oietzaz etzan oroitzen.

(1917)

ANAI ANJEL, EZKONDU ZANEAN

Anjel ori esposatu zanean, Nikolas ere eztaietan zan, onera etorrita.

Anjel, andrearen etxera ezkondu zan. Bi koñata ere etxean bizi ziran. Etxeak Otsazulueta zuan izena. Bizi da oraindik ere andrea.

Andik urte batera iru bertso auek bialdu zituan Nikolasek Argentina'tik:

1/ Anjel ezkondu zaigu,
ez du nai mutilzar,
suertian egin du
etxe eta baztar;
dana berena dute,
ez da jarri maiztar,
gañera fameliyan
aumentua azkar,
ondo bizi zaitezte
maitatuaz alkar.


2/ Sosak ematen ditu
Donosti'ko plazak,
an aixa saltzen dira
tipula ta azak;
andria egunero
ara juaten bazak,
onezkero eman zizkak
gauza oiei trazak;
iñoiz festak eginda
ondo goberna zak.

3/ Bi koñata badauzkak
etxian ezkongai,
Argentina'ra beira
nobiyuaren zai;
emen bazeudek zenbait
tambero ta artzai, (1)
oraindik solteruak
aprendizak aur zai,
esan abek joan arte
egoteko lasai. (2)

(1) *Tambero* = *tambo* baten kontu duana.

(2) Juan Maria Lujanbio'k emanak.

XENPELARRI



Xen-pe-lar-ti-kane-re ir-ten zan mu-ti-lla
es-ko-la-rik ga-bi-a bas-tan-te-a-bi-lla
ja-kin-a-rren buel-ta-tzen zen-bait ma-ra-ti-lla
or-gu-llo gu-txi-ko-a je-ni-yoz u-mi-lla
a-mai-ka ber-tso e-der kan-ta-tu ta i-lla.

- 1/ Xenpelartikan ere
irten zan mutilla,
eskolarik gabia,
bastante abilla;
jakin arren bueltatzen
zenbait maratilla,
orgullo gutxikoa,
jeniyoz umilla,
amaika bertso eder
kantatu ta illa.

2/ Euskalerra ortako
kantuko lanetan
euskaldunen artian
izan diranetan,
ez genduela ikusi
gu gaude penetan;
neri aitona batek
esana benetan
Xenpelarkua zala
onena danetan.

3/ Pello eta Gaztelu,
Errekalde zarra,
Gorriya ta Oloki,
bestia Naparra;
or noski juntatzen zan
kuadrilla azkarra,
Xenpelarkua ere
apenas zen txarra,
kasik denen maisua
Errenteriarra. (1)

(1) Lenengo biak, Juan Mari Lujanbio'k emanak;
irugarrena Angel Lujanbio'k emana.

NESKATXA BATI

- 1/ Anaiak ezkontzeko
jartzen nau segiran,
esaten dit neskatxa
ederrak nun diran:
Errenteri aldian
Saiburu'ko jiran;
apenas abisatzen
gezurak ari dan,
orain amar urte're
batzuak baziran.
- 2/ Or bazan neskatxa bat
bastante zabala,
errespetokua ta
jeniyoz formala;
ark badaki dantzatzen
aitzurra ta pala,
gañera segan ere
zeñek zakik ala?
uste det onezkero
ezkondua dala. (1)

(1) Biak, Jose Maria Lujanbio'k emanak; Juan Maria Lujanbio'k ere bazekian 2'garrena.

EZKON-BEARRAREN KEZKAK

1/ Ezkondu eta gero
gaizki bizitzeko,
neskazar egotia
obia da askoz;
orain mutillak ere
ain gaiztuak datoz,
mozkortzen diralako
patarra ta ardoz.

2/ Emen geientxuenak
badauzkagu faltak,
neronek ere noski
baditut galantak:
lana bañan geiago
maite ditut kantak;
neskak ere guziyak
ez dirade santak. (1)

* * *

(1) Jose Maria Lujanbio'k emanak.

Beste aldi batean bertso au bialdu zuan:

Neroni ere artu ninduten
ezkondutzeko lazuan,
nere nobiya kalekua zan,
etzan jaiua basuan;
jendiak ari asko nai ziyon,
famarik aski bazuan,
pare gabeko neskatxa zala
esan ziraten auzuan. (2)

(2) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.

EUSKAL FRANTZES BATI

- 1/ Apirillaren bosta,
ura zan eguna,
Mar de Plata'n gustora
pasatu deguna;
arrotza gutxi giñan,
jende ezaguna,
Baigorri'ko semia
zan nere laguna,
Napar eskiñakoa,
frantzes euskalduna.

- 2/ Frantzes onek eman dit
España'ko herri,
ezagututzen ditu
orko zenbait erri;
fonda batian sartu,
eserita jarri,
pasara eman dio
zenbait bertso zarri,
aspaldin kantatuak
Pellok Xenpelarri.

3/ Frantzes oi juntatu zan
gurekin onera,
bolsillo guzietan
bazuen moneda;
dirua gastatzeko
ura zan manera!
etzuen obeditzen
gure esanera,
guztiak aitu arte
etzan joan lanera.

4/ Orra bertso berriyak
frantzesaren ondran,
zerbait alabatzia
nik uste det on dan;
errira etorrita
sartutzen da fondan,
aguro galdetzen du
Lujanbio non dan,
neri're gustatzen zait
orrekin errondan. (1)

(1) Lenengo irurak, Juan Maria Lujanbio'k emanak; laugarrena, Angel Lujanbio'k emana.

OKENDO'RI

- 1/ Orain amabost urte
jakindu nituan
Okendo'k zer azañak
egiten zituan:
oker asten ziranak
arekin pleituan,
zuzendutzen zituan
berak segituan,
Españiya'k gizonak
lenago zituan.

- 2/ Okendo juañ zan
bein hatez Brasill'a,
indarrak probatzera
inglesaren billa,
aurrian ezpata ta
atzian makilla,
gogo zuen guztiya
atera zedilla;
laister bota zituan
ankaz gora milla. (1)

(1) Juañ Mari Lujanbio'k emanak.

PELLO ERROTARI

Pello Errotagatik onako bertso au bialdu zuan Nikolasek. Aldi artan bertso au bakarra bialdu omen zuan:

Pello Errota izan omen zan
Argentina'ko Tandill'en, (1)
esan zutenez, bere burua
juzgatu zuan abillen;
oraintxen iya amabi urte
Ernani'n da Usurbill'en,
gure Txirrita billatu nairik
buelbaka antxen zebillen;
geroztik ez det iñun ikusi,
ez dakit nola dabillen. (2)

(1) Tandil, Pello Errota Argentina'ra joanda egon zan erria da. Ikus: *Auspoa*, 32: *Pello Errotaren Bizitza*, 123'gn. orri-aldean.

(2) Juan Mari Lujanbio, Erretereria.

LENGUSU PATXIRI

Donostia'ko Aranburu baserriko Patxi, Saiburutarren lengusua zan. Onen seme bat, Martin, bertsolari zan. Patxik Nikolasi alabaren bat eskeñi ote zion, edo alkarren artean zer zerabilten, ez dakigu ondo. Ta, ori jakin ezean, onako bertso au ezta dana konprenitzen:

Aldi artara juateko artu
degularikan iria,
Buenos Aires'tik Burdeos'ara
noiznai bada baforia;
arrai-klase bat nola baitan oi
txit fiña ta dotoria,
iñoiz batzuek janaz trankilo
pasa dezagun biria,
lengusu Patxik ofrezitu dit
arrantzarako saria. (1)

(1) Juan Maria Lujanbio, Errenteria.

TOLAREBERRIKO MARIARI

Beste eskutitz batean bertso pare au bial-
du zion Tolareberri'ko alaba Mariari:

Neskatxa bat ederra
bada Errenteri'n,
antxe, gure auzuan,
Tolareberri'n;
baldiñ ezkontza on bat
nai baluke egin,
joango zaizkio zenbait
arotz eta argin;
baldiñ ondo badin
baratza ta jardín,
zar izan da zer din?
serbitzen din berdin...
gaur ondo bizitzeko
zerbait biar din!

Jaietan apaintzen da
ta ibiltzen du moda,
ezta nolana joango
dibersiyora;
amaika mutil gazte
badabill ondora,
akaso zarra ere
norbait joango da;
neskatxa ondo da,
juntura sendo da,
eskallera gora
pizkor izango da...
osabaren batekin
ezkonduko da. (1)

Maria onek bi osaba zituan Ameriketan.
Orregatik esaten zion osabaren batekin ez-
konduko zala. Bañan osabak alde bat utzi-
ta beste batekin ezkondu zan, ta gaur Asti-
garraga'ko bentetan bizi da. (1)

(1) Juan Maria Lujanbio, Errenteria.

TOLAREBERRIKO MARIARI BIGARREN ALDIZ

Tolareberri'ko Maria oni berari amabost bertso bialdu zizkion beste eskutitz batean. Guzi-guziak gogoan zituan Nikolasen illoba Jose Marik:

The musical score is written on a single treble clef staff with a key signature of one sharp (F#). The melody consists of a series of eighth and quarter notes, with some notes beamed together. The lyrics are written below the staff, aligned with the notes. The piece concludes with a double bar line.

E-rren-te-ri-zal-de-tik no-ti-zi-ya da-torr
 ez-pa-det kon-tes-ta-tzen' e-rres-pu-es-ta
 zorr; zu-re-tzat no-bi-yo-rik ez-ta pal-ta-ko
 orr mu-ti-l-zar ba-pu-a da au-zo-ko
 Xal-ba-dorr.

1/ Errenteri aldetik
notiziya dator,
ezpadet kontestatzen
errespuesta zor;
zuretzat nobiyorik
ezta faltako or,
mutilzar bapua da
auzoko Xalbador.

2/ Auzotik nobiyorik
ezpada azaldu,
nik Amerika'tik bat
nai dizut bialdu;
erostun onarentzat
bagaude zein saldu,
Maria, etzazula
esperantzik galdu.

3/ Nobiyuaren paltan
etzaude ezkongai,
gaztiak nai dizute
ta zarrak ere bai;
nik iñoiz urrutitik
aditzen det usai,
uste det ote zauden
osabak juañ zai.

4/ Bi osaba Manuel
eta Inaziyo,
zu bisitatutzer
dijuaz propiyo,
ta Nikolasek ere
juango dala diyo;
kontatzen al dituzu
zuk iru nobiyo.

5/ Orain abisatzen dit
nola dagon miñez,
astuak ostikoz jo
intentziyo fiñez; (1)
notizi txarrak oiek
sartu zaizkit ziñez,
neronek supritu det
negarra egiñez.

6/ Astuak ostikoz jo,
anka iya ausi,
aterako zenduen
makiña bat antsi;
biyotzeko Maria,
etzazula etsi,
miña sendatuko da
biyar edo etzi.

(1) Maria au, astoak ostikoz jota, elbarrituta zegoan.

7/ Jaungoikuak galtzera
utziko etzaitu,
pazientziyan pasa,
ez arren etsaitu;
baldin talentu danak
ezpazaizka aitu,
gure ama gaxuak
sendatuko zaitu. (2)

8/ Miñak sendatzen ditu
amaika ukenduk,
eskerrak amatxori
esaten dezu zuk;
iñoiz orren bearra
izandu degu guk,
ori berdintzen lan du
gaur zenbait medikuk.

9/ Ezurreko golpiak
gaiztuak baitia,
zerbait erremeriyo
on da egitia;
lenbailen sendatzeko,
Mariya maitia,
bertsuak kantatuaz
konsola zaitia.

(2) Saiburu'tarren amak, abildade aundia zuan ezur elbarrituak sendatzen.

10/ Fama aundiya zuten
len oiartzutarrak,
aien botikak ziran
mendiko belarrak;
azkar kentzen zizkaten
gaitzari indarrak,
erdi sorgiñak ziran
ango atso zarrak.

11/ Orain bederatzi urte
etzeguan txarra,
aixa egiten zuan
algara ta farra;
arpegi mazizua,
zabala bizkarra,
kasikan ziruriyen
Norteko izarra.

12/ Orain bederatzi urte
ikusi genduan,
atsegin da olako
izar bat onduan;
baldin nere ondoren
segitu bazuan,
Nikolasek kontentu
ekarriko zuan.

13/ Mutilla pranko daude
nere bazterrian,
urte asko dutenak
beren bizkarrian,
andregaiaren billa
asi biarrian,
berrogei urte arte
patxara ederrian.

14/ Amerika'n badago
mutil zar kuadrilla,
ifioiz juntatzen gera
sekulako pilla;
uste det bagerala
gutxienez milla,
norbait azalduko da
Mariaren billa.

15/ Denbora pasa arren
mutil gaztekuak,
andregaiaren billa
gaude astekuak;
portuna asko ditut
irabaztekuak...
ara amabost bertso
iru bostekuak.

MARIA ROLDAN'ERI

Itzaurrean esan degunez, Errenteria'ko
Maria Roldan'ekin ezkondu zan Nikolas le-
nengo aldiz. Ezkondu baño leen, onako ber-
tso au bialdu zuan bein batez Amerikatik
onera, Maria orri buruz:

Errenteri'tik oso aparte
ezta gelditzen Tolosa,
euskaldunentzat izan biar du
oso toki aproposa;
komeniko da laster juatia
aldi ontatik arontza,
illoba, ez degu traturik egin,
ez izan orren zelosa! (1)

(1) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.

JUAN ANTON ETXEBERRIA'RI

Juan Anton Etxeberria, Saiburu ondoan dagoan Xabara baserrikoa zan.

Etzan baserri ona, ta bizimodua ezin sorturik ibiltzen omen zan. Orduan, Argentina'ra jo zuan andrearekin. Seme-alabak, berriez, batzuek emen ta besteak an jaio zitzaizkan. Ganadu-zai Pampetan ibilli zan.

Naiko urte pasa ondoren, onera etorri zan bere familiarekin, diru piska bat eginda.

Errenteria'ko Piku-garate baserria erosi zuan, ta geroztik an bizi ta an il zan. Oraindik bizi dira aren seme-alaba batzuek.

Andik etorritakoan, Nikolasen berriak eman zituan Saiburu'n, zaartzen ari zala ta orrela.

Adierazi zioten emendik Nikolasi esku-titzez Juan Anton orrek zer zion, ta bertso auekin erantzun zuan Nikolasek. Juan Anton bazan ere, Anton bakarrik esaten dio.

Txin-gu-rrí-ya-ren gi-san ba-da-bil jen-di-
 -a Er-ren-te-ri-al-de-ra ba-tzu-ak juan di-
 -(r)a le-nago e-zin man-ten-du zu-te-nak an-dri-
 -a o-raín o-so a-be-rats bi-zi o-mendi-(r)a a-
 -yent-zat A-me-ri-kak o-nak i-zan di-(r)a.
 Oneta
 erubai: -de-ra ba-tzu-ak juan di-

- 1/ Txingurriyaren gisan
 badabil jendia,
 Errenteri aldera
 batzuak juan dia;
 lenago ezin mantendu
 zutenak andria,
 orain oso aberats
 bizi omen dia,
 aientzat Amerikak
 onak izan dia.

- 2/ Batzuak jua dirade
nere ezagunak,
gaztetan izanduak
kasikan lagunak;
Antonek egin ditu
aguro fortunak,
egiya esan badigu
kontatu digunak,
ari da pasatutzen
gustoko egunak.
- 3/ Antonek egin badu
naikua dirutik,
noizbait ere saldu du
bei ta zikirutik;
apenas izandu da
tontua burutik,
festak egingo dizka
askok ingurutik,
ezpazaizka bajatzen
batera irutik.
- 4/ Antonek esan ditu
Nikolasen tatxak,
berak ere baditu
aspaldiko mantxak,
ez dizkanak kenduko
urak eta plantxak;
kortejatu zituan
geiegi neskatxak,
gero pasa zitzaizkan
ziñetara txantxak.

- 5/ Burua soiltzen asi,
bizarra urdindu,
alare ama batek
alaba agindu;
andregaiak badira
baldin nai bagindu,
makiña bat enpeñu
ezkontzeko egin du;
Antonek berri oiek
ez ditu jakindu.
- 6/ Anton etxe txarrian
apenas da sartu,
badaki interesak
nola gobernatu;
nik aditzen dedanez,
bizi zera altu,
porterotzarako ni
nai banazu artu,
pozik etorriko naiz,
noiznai abisatu.
- 7/ Anton arkitutzen naiz
ni borondatian,
porteroz egiteko
zerorren atian;
lenago ere egon naiz,
ai, zenbait urtian,
oituta nago jende
aundiyen artian,
ez nitzake galduko
euskaldun tartian.

8/ Anton neregatikan
nola ibilli zan,
nigana notiziya
azkar etorri zan,
euskaldun batengandik
enteratu nitzan;
kontestatzen badizut
biar eztan gisan,
barkatu, etzazula
asarrerik izan.

9/ Antonek esan ditu
nigatik bi jolas,
azkar enteratu naiz
zertan edo nolaz;
kontestatzeko ere
ez nago ajolaz,
ez naiz koleratua
arkitzen odolaz,
amigo gelditzen da
zurekin Nikolas. (1)

(1) 1, 2, 3, 4, 5, 6 ta 8'garren bertsoa, Juan Mari Lujanbio'k emanak; 7'garrena, Jose Maria Lujanbio'k emana; 9'garrena, Angel Lujanbio'k emana.

OIARTZUN'GO FESTAK

Itzaurrean esan danez, bi etorri-aldi egin zituan Nikolasek Argentina'tik onera, atzera bueltatzeko. Oietako bigarrenean, 1930 urte inguruan, San Esteban eguna emen suertatu zitzaion. Goizean bakar-bakarrik etxetik atera ta Oiartzun'go festetara joan zan. Gero, bueltakoan, onako bertso auek jarri zituan:

Aur-ten O-yar-tzun-un-tan i- zan da
 fes-ta-tik, tun-tu-naal-de ba-ti-an mu-
 -si-ka bes-te-tik ba-zan a-bun-dan-tzi-ya nes-
 -ka-txa gaz-te-tik au-men-tu-a al-da (d) e se-
 -narr e-maz-te-tik

1/ San Esteban egunez
Oiartzun'go plazan,
nai zuenak ikusi
festa franko bazan;
bei bat atera zuten
zezenaren trazan,
asko korritzen zuan,
oso azkarra zan.

2/ Plazarako lau zezen
eskatu erriyak,
iru zezen da bei bat
ziran ekarriyak;
jendia arritu du
ariyen korriyak,
astindu zitun ango
bandera gorriyak.

3/ Plazara aterata
asi zan saltoka,
inguratzen zanari
segitu ta joka;
ez da ona izaten
alako epoka,
nik ez nuen asi nai
arekin borroka.

4/ Festa onak zirala
emanikan traza,
amabost minutuan
an bete zan plaza;
egoten al gerade
kontentu edo lasa,
desgrazia aundiagorik
eztanian pasa.

5/ Aurten Oiartzun ontan
izan dan festatik,
ttunttuna alde batian,
musika bestetik;
bazan abundantziya
neskatxa gaztetik,
aumentua eldu da
senar-emaztetik. (1)

(1) Zortzi bertso omen ziran. Iru galdu dira, beraz. Lenengo lauak, Juan Mari Lujanbio'k emanak ditugu. Bostgarrena, berriz, Jose Mari Lujanbio'k emana.

SAGARDOA

Gaztetako kontuak
dauzkat nik gogotan,
pentsatzen egoten naiz
alperrik prankotan;
len gauza merke bazan
Gipuzkoa ortan:
pitxarra sagardua
amar xentimotan. (1)

* * *

Ameriketan alargundu ondoren, onera azkeneko aldiz etorri baño lenxeago, onako bertso au bialdu zuan:

Elkar ikusi gabe
bizitzia motz-ta, (2)
ogei urte etzaizkit
oso gutxi kosta;
preparatu zaitezte
laister bagatoz-ta,
elkar abrazatuaz
emateko bosta,
diran ontzi guztiyak
bete sagardo-ta. (3)

-
- (1) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.
(2) motz-ta = motz da.
(3) Anjel Lujanbio, Alza.


ITALIANO BATI

Ogei ta iru seme zituan italiano bat eza-
gutu zuan Nikolasek Argentina'n, bera bi-
zi zan errian, Mar del Plata'n.

Ta bertso tarako beti prest baitzegoan,
onako bertso au egin ta onera bialdu zuan
eskutitz batean:

Italiano bat Mar del Plata'n
iñoiz degu ikusitzen,
ogei ta iru seme dauzkana,
ari diranak azitzen;
lanikan asko aitak badauka
mantendu eta jantzitzen,
oien tartian amak ere
ez du gutxi padezitzen...
Ameriketan ere guziyak
eztira ondo bizitzen. (1)

(1) Anjel Lujanbio, Etxeberri, Alza.



ANJEL LUJANBIO

(1886-1961)

ZENBAIT BERTSO

Leen ere esan degun bezela, senideetan gazteena Anjel zan. Beste bi anaiak baño gutxiago saiatu bazan ere, au bera ere bertotan zekiana zan. Iru bertsolari beraz, famili batean, gizaldi berean.

Arena da onako bertso au:

Urte asko daukazkit
mundu ontan junak,
txarrak asko dirade,
gutxi dira onak;
ez nau ondo artutzen
nekia ta lanak,
alimentuik ezpadet
laster akabo nak. (1)

* * *

Eskutitz bat ere bialdu omen zion amabi bertsoekin Ameriketako anai Nikolasi. Oietan aurrena, onako au zan:

(1) Patxi Lazkano, Otsoki, Alza.

Aruntz jua intzan leku ortatik
onuntz baziok biria,
ik emendikan eraman uan
aberasteko iria;
baldin ortikan etortzen ba(y)aiz
andrerik artu gabia,
sarri illobak pronto badituk
Juanita eta Maria.

Ta Nikolasek beste amabi bertsoekin eran-
tzun zion. Lendabizikoa onela zan:

Gipuzkoa'tik Arjentiña'ra
gure anaia gaztiak
berak jarrita bertso ederrak
kartan bialdu zizkiak;
oso ederki jarriyak zeudek,
asko gustatu zaizkiak,
aztuan neuzkan kontuba pranko
akordarazi dizkiak. (2)

* * *

Anjel, Errenteria'ko Otsazulueta baserrira
ezkondu zan, leen esan degun bezela. Ama-
giarreba, Maria Josefa Etxeberria Elizondo

(2) Juan Mari Lujanbio, Errenteria. Damuril,
etzan oroitzen bi bertso auetaz baizik.

zeritzan. Errenteria'ko Añabitarte baserriko
alaba zan, eta Otsazulueta'ra ezkondua. 1954
urteko Azaroaren 16'an il zan, 87 urterekin.

Egun batez, etxeko sukaldean-edo zirala,
onela kantatu zion Anjelek:

Zakarkeririk gabetandikan
beti izkuntza goxua,
bere illobak arrimatzian
noiznai emanaz muxua;
buruko illia txuritu zaio
dirudiyela uxua,
larogei eta zazpi urtekin
gure amona gaxua. (3)

(3) Jose Maria Lujanbio, Pasaia.

ARKIBIDEA

Iru anai bertsolari 7

JUAN JOSE LUJANBIO "SAIBURU"

Soldaduzkan 19

Bertso Berriyak Sareaburu'ko Juan Jose Lujanbio'k jarriyak (Errenteria'ko Misioa, 1909) 21

Bertso Berriyak: "Milla ta beatzi eun kunplituta..." 29

"Bertso berriyak ateratzia..." 36

"Zure aizpakin nitzadelako..." 41

Oroipena 43

Bertso Berriyak: "Milla bederatzireun da ogei ta..." 47

Bertsolari-eguneko bertsoak 51

Aotik aora 63

NIKOLAS LUJANBIO

Amerika'ri, ara joan baño leen 73

Itxas-bidetako lanak 75

Ezkon-bearra, lana, Txirrita ta abar 78

Anai Anjeli 84

Andoain'go Julia 85

Argentina'ko neskatxak 91

Nikolasen jakiak 92

Txirritari 93

Olegario, Telleri-Txiki, illoba 96

| | |
|--|-----|
| Gaztetako kontuak gogotan | 98 |
| Donostia, Txirrita | 103 |
| Anai Anjel ezkondu zanean | 106 |
| Xenpelarri | 108 |
| Neskatxa bati | 110 |
| Ezkon-bearraren kezka | 111 |
| Euskal frantzes bati | 113 |
| Okendo'ri | 115 |
| Pello Errotari | 116 |
| Lengusu Patxiri | 117 |
| Tolareberri'ko Mariari | 118 |
| Tolareberri'ko Mariari bigarren aldiz | 120 |
| Maria Rolcan'eri | 126 |
| Juan Anton Etxeberria'ri | 127 |
| Oiartzun'go festak | 132 |
| Sagardoa | 135 |
| Italiano bati | 136 |

ANJEL LUJANBIO

| | |
|-----------------------|-----|
| Zenbait bertso | 139 |
|-----------------------|-----|

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: RAMUNTXO (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: GALTZAUNDI.
8. *A. Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *B. Iraola*: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: BORDAXURI (*Aitua*).
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: DIRUA GALGARRI. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *A. M.^a Zabala*: GABON GAU BAT.
17. *A. M.^a Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI!
- 18-19. *A. Zavala*: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: LURDESKO GERTAERAK.
21. *P. Larzabal*: HERRIKO BOZAK.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. *F. Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *A. M.^o Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *B. A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *T. Alzaga*: BURRUNTZIYA.
30. *G. Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: PELLO ERROTAREN BIZITZA.

33. *M. Elicegui, A. Zavala*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverria*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARI-TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala*: PELLO ERROTAREN ITZALA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.
54. *A. Zavala*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide*: ASIS'KO LOREA.
59. *A. Zavala*: AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA.
60. *A. Zavala*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: GAZTELU BERTSOLARIA.
62. *A. Zavala*: ZARAUTZ'KO ZALDUBI BERTSOLARIA.
- 63-64. *A. Zavala*: JUAN ETA PELLO ZABALETA BERTSOLARIAK.
65. *J.M. Satrustegui*: LUZAIDE'KO KANTIAK.
66. *A. Zavala*: IRU BERTSOLARI.
67. BERTSOLARI TXAPELKETA (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: ALZO'KO IMAZ BERTSOLARIA.
- 71-72. *A. Iturriaga*: IPUIAK.
73. *A. Zavala*: IRU ANAI BERTSOLARI.

